

ASTELEHENEKO Goienkaria

2009ko abenduaren 14a > Astelehena > VII. urtea > 258. zenbakia > Euro 1

www.goiena.net TOKIKOM

"Laguntza beharra duten herrialdeekin elkarrengandik ikastea da asmoa"

Markos Gabilondo
Komite
Internazionalistak > 09



G2a Garik 16 lore biluztu zituen Espaloian > 29

BERDINTASUNA Jaurlaritzarekin batzartu ostean, transexualen gose greba etenda > 06

OÑATI Santa Anan bigarren aukera 1542ko hitzarmena ezagutzeko > 11

ARRASATE Bukatu dituzte Aldai parkeko lanak eta laster izango da erabilgarri > 14

OSASUNA > MONDRAGON HEALTH

Zahartzeari aurre egiteko arlo berria

BEHARRAK Gizartea zahartzeak dakarren beharrei erantzuteko da Mondragon Health

ADINEKOAK 2015ean EAEko biztanleen ia %22 erretiratuta egongo da > 06



LEKUKOA HARTUTA Maialen Lujanbio eta Andoni Egaña, epaia jakin ahala.

LUIS JAUREGIATZO / ARGAZKIPRESS

Olatuak erreleboa ekarri du txapelketara

Jende olatu ikaragarria izan da aurtengo Bertsolari Txapelketako Finaleko ezaugarri nagusienetakoa; entzuleen jarrera ikaragarria izan da uneoro eta arratsaldeko saioetan giroa paregabea izan da, etengabe animatzen. Horrez gain, Maialen Lujanbio puntu ugari eskuratu zituen goizeko saioetan eta goitik ibili zen final guztian. Amets Arzallus ere fin-fin, eta azkenean txapela lehenengoz, emakume batek. > 33

OSASUNA > GARBITZAILEAK

Egun osoko lanuztea ospitalean

Garbitzaileek protesta egingo dute eguaztenean > 06

POLITIKA > ARALAR

Etxaniz, ibarreko ordezkari

Mikel Etxaniz, Aralarreko ibarreko koordinatzailea > 04

AURKIBIDEA

Debagoiena > 04-06
Auzoak > 07
Elkarrizketa > 08
Iritzia > 10
Herriak > 11-20
Kirola > 21-28
Kultura > 29-33
Saikatuak > 34-35
Denbora-pasak > 36
Telebista-Irratia > 37
Berri-zakua > 38-39

PIRAGUISMOA > BERGARA

Bigarren Kayak Festa egin zuten zapatuan

Aurten ere Bergarako Beti Busti elkarteko kideek piraguismoa bultzatzeko festa egin dute Bideberri. Hotzari aurre eginez, slalom paraleloa egin zuten. > 21

Goiena
Komunikazio Zerbitzuak

lan-olozko
Goienako Buzkalo Zerbaki

Deskontuak
Goiena Klubeko txartelarekin,
deskontu eta abantailak izango
dituzu. > Zoaz 12. orrialdera

Goiena kluba

Ford Kuga berria.
Salmentetan lehenak.

21.300 eurotik aurrera
diseinua guztien eskura

Mugarri Autoak
Araba Etorbidea, z/g
ARRASATE

Feel the difference

Ford

NUEVO
ECOBONO
FORD

Iritsi dira
abenduko opariak!
Badago zuretako?

Zoaz 7. orrialdera

LANA > JOSTUNAK

Santa Luzia, jostune iku

IKASI Arropak mozten, berriak egiten eta konpontzen ikasten dute, eta hasieran, jositako gauza asko desegin behar dira

ARROPAK Jantzi ekomomikoak egonda, gutxiagok hautatzen dute nork bere arropak jostea garestiagoa ere badelako

BISTA Ikusmena gordetzen duen martiria da Santa Luzia; jostune i begiak nekatzen zaizkielako da euren zaindaria

IRATI AGIRREAZALDEGI > BERGARA
Santa Luzia, bista kontserbatze-ko grazia, dio esarak, eta joskintza lanetan jarduteko, haria orratzean sartzeko, puntada finak emateko... ikusmen ona izatea beharrezkoa da. Horrega-

tik, Santa Luzia jostunen zaindaria dela esan ohi da, eta, abenduaren 13an Santa Luzia eguna izanik, josi eta josi hari muturrari tiraka jostunen eta joskintzaren gainekoei puntadak ematen jardun dugu.

Olga Parrak 24 urte daramatza Bergarako Anezka dendan joskintza eskolak ematen, eta denetarik egiten dute: "Arropak mozten ditugu, arropa berriak egin eta bada konponketak egi-tera etortzen denik ere. Gazte-

ak ikasteko gogoz etortzen dira gurera, eta bada moda ibiltokietara iritsi denik ere; esaterako, Nora Urkia diseinugile bergarra gurean ibilitakoa da".

Arrasateko Itsaso del Rey moda diseinu ikasketak egin zituen eta orain aisialdian jarduten du joskintzan: "Joskintza ikastaroak eman izan ditut, eta etxean lantxoak egiten ditut: gortinak, lagunendako arropa konponketak...".

DENBORA ETA PAZIENTZIA

Teknika asko garatu dira joskintzan, eta erabiltzen dituzten materialak ere asko dira: larrua, puntua, likradun oihalak, lana, tergal, franela... "Errazena da albaintzea (hilbanatzea) eta prakarenak jostea, kremailera bat josteak zailtasun apur bat handiagoa du, baina berez ezer ez da zaila, edozein lanbidetan



Anezka dendako joskintza akademian arropa berriak

bezala denborarekin ikasten da", esan digu Olga Parrak.

Itsaso del Rey ere bat dator horretan: "Pazientzia ere beharrezkoa da. Ikasi artean josi eta

Piztu LTDa
Askoz gehiago gozatuko duzu

Kalitate Handiagok
Teknologia digitalak irudi- eta soinu-kalitate handiko telebista dakarkigu: zaratarik gabe interferentziarik gabe eta irudi bikoitzik gabe.

Guztientzako Programazioa
20 telebista-kanal baino gehiago izango dituzu zure eskura: betikoak eta kanal-eskaintza gehigarri handia, era askotako edukiekin (musika, kirolak, haurrentzako, filmak, telesailak...).

Zerbitzu Elkarreragileak
LTDri esker, telebistako kide aktiboa bilakatuko zara. Hori guztia zure urrutiko kontrolarekin.

television digital terrestre



Gloria Parrak baserriar arropa egin du Balentziaga eredu hartuta. I.A.

Balentziaga, Armani eta Chanel eredu

Arropak ez dira ezerezetik sortzen eta jostunen ideiak ere ereduetatik sortuak dira. Olga Parrak hiru diseinugile aipatu dizkigu eta horiek oinarritzat hartzea merezi duela dio: "Balentziaga da maisuetan maisu. Haren eskola, haren patrioiak, haren harmonia, dena dut gogoko. Armanik arropen arintasuna eta erosotasuna ematen asmatu zuen. Inork ez du lortu egiterik emakumearendako jaka bat Armanik bezain polita. Chanel, berriz, *glamour*-aren eredu da. Gustatu zitzaidan bere garaian Coco Chanelek modan egindako iraultza eta baita ondorengoek hari jarraituz egin duten bidea ere".



Datorren **urtarrilaren 10ean** emanaldi analogikoak bukatuko dira Gipuzkoako udalerrri batzuetan*. Telebista ikusten jarraitu nahi baduzu egiaztatu zure telebista-instalazioa LTDra egokituta dagoen, horrela ez bada, erosi deskodegailu bat edo deskodegailua duen telebista.

*Aretxabaleta, Arrasate, Bergara, Eibar, Elgeta, Elgoibar, Eskoriatza, Legazpi, Leintz Gatzaga, Mendaro, Onati eta Soraluze.

Informazio gehiago: 901 201 004

Ikusmena gordetzeko grazia



...ekin, konpondu edo moldatzen dituzte Olga Parraren laguntzarekin.

IRATI AGIRREAZALDEGI

desegin ibili behar da, eta berehalakoan ez dira emaitzak ikusten".

Anezkan askotariko arropak josten dituzte: baserritar arro-

pak, jaietarako edo emaztegaiendako soinekoak, prakak, jakak, gonak... "Gehienetan jende nagusia edo neurri bereziak behar dituena etortzen da, bai-

na badira kapritxo moduan beste inork edukiko ez duen arroparen bat nahi dutelako etortzen direnak ere", dio AnezkakoParrak.

ARROPA MERKEAGOAK

Itsaso del Reyren ustez, "jende gaztea diseinu munduan sartzen gero eta gehiago animatu arren, jostea ez zaie erakargarri egiten".

Berarendako josi izan du arroparik, eta arropa kontuetan gauzak aldatuz doazela esan digu: Badirudi jendea ausartagoa dela arropa berriak edo berritzaileak janzteko orduan. Hala ere, gaur egun, moda marka ezagunak eta merkeak izanik, ez du merezi arropak norberak egiterik: josten duenak egiten du benetan gustuko duelako; izan ere, garestiagoa da nor berea jostea".

Parrak dio globalizazioak gauzak aldatu dituela, "baina emakume bergararrek badute oraindik *glamour*-a. Pixka bat jaitsi da dotore eta diseinuzko arropekin janztearen kontua, besteak beste marka ekonomikoagoak daudelako".

Del Reyk ez du Santa Luzia eguna ospatu; Parrak akademiako lankideekin bazkaria egingo du asteon. "Ospakizunak bestelako ikuskizunekin nahasten direnetik ez dugu afaririk antolatzen", dio.

Santa Luziak ikusmena gordetzen duela diote sinestunek, eta josteko bista ona behar da. "Joskitzan lau ordu oharkabean pasatzen dira, eta begiek igarri egiten dute".

Praka beltzetan hari zuririk ez da sekula faltako, zioen kantuak, baina jostun onen etxeetan ez da horrelakorik gertatzen.

BABES OFIZIALETARAKO ESKAINTZA BEREZIAK



IKER

SUKALDEAK: ARRASATE: Udala Plaza z/g / 943 79 00 43 • OÑATI: San Lorentzo 1 / 943 53 35 48

FAGOR 

JENDARTEA > BERDINTASUNA

Jaurlaritzarekin batzartu ostean, gose greba atzera bota dute bi transexualek

Errespetuz taldeak deituta eta transexualek ebakuntzak egiteko jasotzen duten laguntza eza salatzeke, gose greba egitekoak ziren Bergaran

IKER BARANDIARAN > BERGARA
Errespetuz-ek ordezkaten dituen transexualen kezka nagusia zen Jaurlaritzarekin hitz

egitea eta azkenean, barikuan, gose greba hastekoa zen egunean, Ongizate Sailarekin batzar-zea lortu zuten.

Orain arte Osakidetzak ez ditu ebakuntza horiek egin, eta interesatuek zentro pribatueta-ria jo behar izan dute. Gerora,

2005ean, Jaurlaritzak diru partida bat onartu zuen transexualen ebakuntza kostuak arintzeko. Zoritxarrez, 2008rako motz gelditu zen aurrekontua.

Horren ostean, gobernu aldatzarekin egoera okertu egin zen, euren esanetan. Inongo sailek ez zuen eskumenik hartu, eta

2009an egindako ebakuntzarako laguntzen zain daude hainbat herritar.

EBAKUNTZAK OSAKIDETZAK
Egubakoitzean jakinarazi zieten laguntzak emango dizkietela, baina hemendik aurrera Osakidetzak egingo dituela ebakuntzok.

POLITIKA > EAJ

Josu Erkoreka kongresukideak berbaldia egin zuen Arrasaten

I.B. > ARRASATE
Josu Erkorekak EAJK Madrilgo kongresuan daukan ordezkarietako batek berbaldia egin zuen

egubakoitzean Arrasateko Kulturaten. Aretoa bete zen eta ibarreko EAJKo ordezkarietz gain, herritar asko batu zituen.

Erkorekak esperientzia handia dauka politikagintzan. Hala, urteetan Madrilgo kongresuan ikusi eta bizi izandakoak azaldu zizkien bertaratutakoek; zelan oposizioa egin PSE-PP bipartidismoaren aurrean eta beste.

ENTZULEEK, GALDERA ASKO

Horrekin batera, berba izan zituen gaurkotasuneko beste gai batzuk: hala nola, abortuaren legea, enpleguaren konpetentziak eta beste; eta entzuleek hainbat galdera egin zizkioten.

Erkorekak berretsi zuen EAJ-ren helburuak direla autogobernua lortzea, erabakitzeko gaitasuna izatea eta erakunde guztietan oposizio indartsua eta eraikitzailea egitea.



Josu Erkoreka eta Juan Carlos Arrasateko Kulturaten.

JOSETXO ARANTZABAL

POLITIKA > ARALAR

Hiru debagoiendar, Gipuzkoako exekutiban

I.B. > BERGARA
Aralar alderdiak Gipuzkoako lehen konferentzia politikoa egin zuen zapatuan Donostiako Miramar jauregian. Bertan Oxel Erostarbe elgetarrak beste agintaldi

baterako berretsi zuen Gipuzkoako koordinatzaile kargua (hautagai bakarra zen). Horrez gain, Mikel Etxaniz bergararrak Miren Arregi oñatiarra ordezkatu du Debagoieneko koordinatzaile

karguan. Hala, aurrerantzean ere hiru debagoiendar izango dira Gipuzkoako exekutiban: Oxel Erostarbe, Mikel Etxaniz eta Rebeka Ubera batzarkidea.

150 bat lagun izan ziren konferentzia politikoa eta alderdiaren koordinatzaile nagusi Patxi Zabaletak eta Jon Abrilek ere esku hartu zuten. Batasunarekin harremanak estutzeko asmoa eta gazteak animatzea izan ziren aipatutako ildoetako batzuk.

ELKARTASUNA > PORTALOIRA

Arropen bigarren eskuko azoka egin dute Arrasaten

Portaloirak herriko presoaren eskubideen eta haien senideen alde lan egiten du

Aurtengoa orain arteko bosgarren azoka izan da, eta bi berrikuntza gehitu dizkiote: bata, aurten liburuak ere saldu dituztela; eta bestea, crepak ere eskaini dituztela.

JENDE GUTXIAGO


Aurten arropa gutxiago batu dela eta jende gutxiago ibili dela esan digute antolatzaileek, baina gustura daude ekimenak izan duen harrerarekin.

Dena dela, herritar dezentek eskuratu zituzten prakak (euro bakarrean), jakak eta jertseak (bina euro) eta narruzko jakak (bost-sei eurotan), besteak beste.

I.B. > ARRASATE
Portaloira plataformak bigarren eskuko arropen azoka egin du asteburuan Arrasateko Seber Altube plazan. Portaloira Arrasateko presoaren eskubideen alde lan egiten duen plataforma da, herriko elkarte eta herritar asko batzen dituena. Urtean zehar hainbat ekimen egiten dituzte.



Aurten ere arropa dotorea merke eskuratzeko aukera izan da. IKER BARANDIARAN



Antolaketa eta Industria Kudeaketa

Ekoi-zen Zuzendaritza Masterra {ARRASATE, URT. 12}
Mantentze Kudeaketa Ikastaro Aurreratua {ARRASATE, URT. 20}
Makinaren Muntatze eta Mantentzean Aditu Ikastaroa {BILBO, OTS. 15}
Industri Automatizazio Ikastaro Aurreratua {BILBO, OTS. 23}
Proiektuen Kudeaketa Ikastaro Aurreratua {ARRASATE, OTS. 22}

Informazioa eta izen ematea:
Isabel Mangana. Tel. 943 71 21 83 / imangana@eps.mondragon.edu

Enpresen Kudeaketa eta Zuzendaritza

Finantza Ikastaro Aurreratua {OÑATI, OTS. 1}
Logistika eta Garraioa Ikastaro Aurreratua {IRUN, OTS. 1}
Kirol Entitateen Kudeaketa eta Zuzendaritza Ikastaro Aditua {IRUN, OTS. 2}
ETEn Enpresa Kudeaketa Ikastaro Aurreratua {OÑATI, OTS. 2}
Marketing Ikastaro Aurreratua {DONOSTIA, OTS. 5}

Informazioa eta izen ematea:
Mireia Igarzabal. Tel. 943 71 80 09 / migarab@eteo.mondragon.edu



Bergarako plazan dago Errege Seminarioa.

GOIENKARIA

BERGARA > SINADURA

Errege Seminarioa, Patronatuaren esku

Begarako Udala interesatuta dago Arrizuriaga jauregia Patronatuari emateko eta ordainetan Errege Seminarioa jasotzeko

GOIENKARIA > BERGARA

Begarako UNEDeko Patronatuak eta Espainiako gobernuak, Hazienda ministerioak hain zuzen, Errege Seminarioa Patronatuaren esku geratzeko eskritura sinatu zuten egubakoitzean, Donostian. Markel Olano diputatu nagusiak eta Javier Herro Haziendako Gipuzkoako ordezkariak sinatu zuten akordioa.

Gaur, astelehena, UNEDeko Patronatua osatzen duten erakundeek bilera egingo dute Donostian, eta lortutako akordioaren berri emango diete komu-

nikabideei bileraren aurretik. Diputazioaren aldetik Markel Olano eta Maria Jesus Aranburu Kultura diputatua; Bergarako Udala ordezkatzuz, Agurne Barruso alkatea; Kutxaren partetik Carlos Ruiz; Enrique Moreno UNED ikastetxearen partetik; Juanjo Alvarez UNED Bergarako zuzendaria; eta Luis Elizegi Patronatuko idazkaria izango dira aipatutako bileran.

Patronatuaren eta Hazienda ministerioaren arteko akordioak eraikinen permutaren gaia atara dezake mahai gainera. Izan ere,

Begarako Udala interesatuta dago Arrizuriaga jauregia Patronatuari emateko eta ordainetan Errege Seminarioa jasotzeko.

NEGOZIAZIO LUZEAK

Joan den urteko urrian lortutako akordioaren arabera, UNED-Bergara Patronatuak erabaki zuen Madrilgo gobernuari Erret Mintegia milioi baten truke erostea. 2005. urtetik lagapen egoeran egon da Errege Seminarioa, eta aurrerantzean, esan bezala, Patronatuaren jabetza izango da. Bertako erakunde bakoitzak, Patronatuan duen partaidetzaren arabera egingo du diru ekarpena: Bergarako Udalak 100.000 euro, Kutxak 270.000 eta Gipuzkoako Foru Aldundiak 630.000 euro.

GERTAKARIAK > BERGARAN

Bi lagun atxilotuta hainbat ibilgailutan lapurreta egitearren

Bergaran eta Antzuolan izandako beste lapurreta batzuk ere leporatzen dizkiete bi atxilotuei

GOIENKARIA > BERGARA

Ertzaintzak 17 eta 43 urteko bi gizonen atxilotu zituen eguenean Bergaran, ibilgailu batzuetan lapurreta egiteagatik. Atxilotuei Bergaran eta Antzuolan izandako beste lapurreta batzuk ere leporatzen dizkiete. Eguenean, goizaldeko bostak aldera,

Ertzaintzaren patruila batek bi gizonen atxilotu zituen Martoko kaletik ihes egiten, polizia ikusi eta gero. Ertzaintzaren susmagarrietako bat harrapatu zuten. Ertzaintzaren arabera, gizonak zenbait objektu ezkutatu zituen zuhaixka batzuen atzean. Susmagarria atxiki ondoren 17 urte-

ko adingabekoa zela egiaztatu zuten. Ertzaintzak emandako informazioaren arabera, zuhaixken artean ordenagailu-pantaila bat, inprimagailu bat, irrati CD bat eta DVD grabagailu bat ezkutatu zituen. Adingabekoak objektu horiek ibilgailu batzuetatik lapurtu zituela adierazi zuen.

Ordubete beranduago, beste patruila batek San Antonio kalean, beste atxilotu gertatutako lekutik gertu gizon bat atzeman zuen Seat Ibiza baten barruan. Agenteek zenbait irrati CD, radar-detekttagailu bat, GPS bat eta hiru MP3 aurkitu zituzten, beste objektuen artean. Ertzaintzaren gizona atxilotu dute ibilgailuetan lapurreta egiteagatik. Atxilotuak 17 eta 43 urteko gizonenak dira, eta epailearen esku jarri dituzte. Ertzaintza konfiskatutako objektuen jatorria ikertzen dabil.

etxeko leihotik



Ubane Madera > 'arrasate@goiena.com'

Posible da guztiok bat izatea gure herrian

Tokatu zitzaidan orain dela gutxi Plazentziako herri bazkari baten izatea. Badakizue, halakoetan ohi den moduan, ehunka lagun elkartu ginen, adinari larregi erreparatu barik. Baina azken bazkari hori bestetakoa baino bereziagoa egin zitzaidan.

Gure taldean M'bai izan genuen lagun, Senegaldik Bilbora etorritako gazte beltz-beltza. Txerrikirik ez zuen jan; bai, ordea, txerriki barik egositako baba gorri eta gozoak.

Bazkalosteko dantzaldian, berriz, beste mutil beltz-beltz bat aurkeztu zidaten; kasu horretan, Ganbiatik etorritakoa. Eta a ze sorpresa, ingelesez beharrez, hark euskara ederrean berba egin zidanean!

Eta erdian ginen gu: Plazentzian jaio, hazi eta hezitakoak. Baserritarrak alde batetik, euren eguna zelako; gazteria ederra bestetik, halakoetan behar den moduan; eta erdibidean gauden gainerako guztiok hirugarrenik: gurasoak, alkatea, kultura elkarteko ordezkariak, zinegotziak (kasu horretan batzuk bakarrik) dantzari, txistulari, erromeria jotzen ibili zirenak... Eta horixe izan zen gehien gustatu zitzaizdana: han ez zegoela inoren arteko alderik. Han baginen umetan Ikastolan ibilitakoak, baina baita ere eskola nazionalen ibilitakoak; beltzak eta zuriak; etxekoak eta kanpokoak...

Guztiok euskal giro peto-petoan gustura. Orduantxe ikusi nuen bai, nahi izanez gero, posible dela guztiok bat izatea.

"Beltzen, zurien, etxekoen zein kanpotarren artean ez zen alderik egon"

> Ahalegina

Sarri ikusi izan dut ahalegin handiagoa egiten dutela Estatu kanpotik datozenek gure bizimodua, hizkuntza eta ohiturak ezagutzeko, gure artean urtetan bizi diren askok baino, gehienak Estatu-tik etorritakoak.

> Herriaren indarra

Erazagoa ematen du lortzea herritarren arteko adostasuna, batasuna edo, behintzat, gutxienezko elkar ulertzea politikarien artekoa baino; galdera da zein punturaino jabetzen diren eurak errealitate horrekin.

NEKAZARITZA > ARRASATEN

Itsasmendikoi Fraisororen eskutik bi hitzaldi astean

Bihar, martitzena, Udalako Ingurumen Eskolan eta eguenean Bedoñan

ruko hitzaldia izango da eta Xabier Estebanek ondoko gaia jorratuko du, euskaraz: *Energia berriztagarriak erabiltzea landa inguruan.*

EGUENEAN, BEDOÑAN

Bigarren hitzordua eguenean, abenduaren 17an, izango da, 16:30ean, Bedoña auzoko eskola-etxean. Osakidetza Loreto Santa Maria eta Osalaneko Jose Manuel Bermejo izango dira hizlariak. *Riesgos y prevención en la utilización de productos fitosanitarios* izenburuko hitzaldia egingo dute.

E.M. > ARRASATE

Arrasateko Udalarekin batera, Itsasmendikoi Fraisorok bi hitzaldi antolatu ditu Arrasaten. Lehen hitzordua bihar, martitzena, izango da. Xabier Estebanek egingo du hitzaldia, 18:00etan, Udala auzoko Ingurumen Eskolan. Bi ordu ingu-

OSASUNA > MONDRAGON TALDEA

Gizartearen zahartzeak dakartzan beharrei erantzun gura diote sortu duten arlo berriarekin

Euskadiko adinekoen kopurua bikoiztu egin da eta 2015ean euskaldunen ia %22 erretiratua izango da

Mondragon Health sortu dute, zahartzeari aurre egiteko arloa

MIRARI ALTUBE > ARRASATE

Mondragon Health izena jarri dio Mondragon Taldeak osasunean oinarritutako arlo berriari. Eguean, hilak 10, Garaia Berrikuntza Gunean aurkeztu zuten arlo hori, Hirugarren Adinekoen Osasun Zerbitzuak izeneko lehen jardunaldiak antolatuta. Jardun-

diotan 100 aditutik gora izan ziren eta Rafael Bengoa Osasun sailburuak hartu zuen parte.

OSASUN ARLOKO IBILBIDEA

Javier Sotil Mondragon Taldeko Berrikuntza, Sustapen eta Ezagutza presidente ordeak azaldu zuen Taldearen hastapenetan osasun

arloa egon bazegoela baina azken urteotan industriarantz egin dutela. Horregatik berriro osasunari helduko diote, eta krisi garaian merkatu berriak zabaltzeko aukera ikusi dute. Apaltasunez ekin gura diote osasun arloko ibilbideari, orain arte zerbitzu, kudeaketa eta teknologia arloan ikasi

takoek lagunduta. Eta dagoeneko eman dituzte lehen pausoak hirugarren adinekoekin. Horren adibide jarri zuten Aretxabaletan ekainean zabaldu zuten GSR zaharren egoitza.

ZAHARTZEAREN ONDORIOAK

Mondragon Health arloko zuzendari orokorra Mikel Alvarez da. Sortutako arlo berriarekin XXI. mendeko beharrei erantzun gura diote, hau da, gizartearen zahartzeak dakartzan arazoei. Azken 50 urteotan Euskadiko adinekoen kopurua bikoiztu egin dela jakinarazi zuten jardunaldiotan eta "2015ean euskaldunen ia %22 erretiratua izango da". Gaineratu zuten gaixo kroniko batek 6.000 euro behar dituela urtero medikuntza kontuetan. Zahartzaroak eta ondorioz horrek dakartzan gaixotasun kronikoek eta dependentsiak ongizatearen gizarteko iraunkortasuna mehatxatzen dutela jakinarazi zuten. Horregatik, teknologia berrien, gaixoaren eta osasun zerbitzuen gaineko ezagutzak behar beharrezkoak direla uste dute; hala, telemedikuntza, domotika eta online bidezko arretarekin adinekoei etxean erantzutea da asmoa.

Mondragon Health ekimena ideia bikaina iruditu zaio Rafael Bengoa sailburuari eta sektore publiko eta pribatuaren arteko elkarlanaren alde agertu zen Garaia jardunaldietan.



Garaia Ikerkuntza Gunean egindako jardunaldietan Javier Valls, Javier Sotil, Rafael Bengoa eta Mikel Alvarez.

NEREA SANCHEZ

FAGOR > ETXETRESNAK

Krisia garaitzeko eredu egokia dela kooperatiba dio Bilbaok

M.A. > ARRASATE

Fagor Etxetresnakeko zuzendari nagusi den Fabian Bilbaok adierazi du kooperatiba eredu egokia dela gaur egungoa bezalako krisiak garaitzeko, ez hori bakarrik, gaitasun bereziak dituela horretarako. Adierazpe-

nok www.elmundo.es webgunerako egin ditu herritarrek egindako galderei erantzunaz. Espainiako zazpigarren industria erakunde dela Mondragon Taldea jakinarazi du. Euskal Herriko barne produktu gordinaren %4 suposatzen duela ere esan du eta

ia 100.000 herritarri ematen diola lana Taldeak, horietatik %85 Espainiako estatuan.

Onartu du krisiaren eraginez merkatu askotan bolumena galdu dutela, batez ere estatukoa; hemen, hiru milioitik gora produktu gutxiago saldu dituzte azken bi urteotan.

Bestalde, ikerkuntza eta garapenerako 50 milioi euro bideratu dituela Fagorrek esan du eta innobazioari dagokionez estatuko lehen 15 enpresen artean dagoela.

OSPITALEA > GARBITZAILEAK

Egun osoko lanuztea egingo dute eguaztenean, hilak 16

M.A. > ARRASATE

Bi orduko lanuzteak egin zituzten goizean eta arratsaldean Debagoieneko ospitaleko garbitzaileek joan zen egunean, hilak 10. Eta eguaztenerako beste bat deitu dute; oraingoan egun osokoa izango da.

Orain dela hiru urte sinatu zuten lan hitzarmena garbitzaileek baina ez dutela errespetatu adierazi dute LABeko ordezkariak. Batzarra egiteko hainbat eskaera egin dituztela gaineratu dute, baina oraingoz ez dutela erantzunik jaso.



SYMS
SERVIMASA
Sukaldeko altzariak eta osagarriak

Aitziturri 4, Posta-kutxa 173
Tel.: 943 76 19 95 Faxe: 943 76 07 49
20570 BERGARA

103 Industria poligonoa
Tel.: 943 52 05 00 Faxe: 943 51 57 57
20100 LEZO

auzorik auzo

BASALGO > Elgetarako bidean, Bergarako herri erdialdetik pare bat kilometrora dago Basalgo auzoa, ikuspegi ederra duen gaintxo batean. Sasoi baten abadetxe izan zenaren ondoan dago eliza, pilotalekuaren ondoan.



Atzealdean abadetxea eta eliza ditu Ezenarro; atzerago pilotalekua dago.

A.E.

Gaspar Ezenarro > Basalgoko auzo-alkatea

"Frantsesak sartu zirenean elizak saldu zituzten; hala, auzoak erosi zuen ermita"

ARANTZAZU EZKIBEL > BERGARA

Gaspar Ezenarro azkeneko lau urtetan da Basalgoko auzo-alkatea. Jaiotzez kaletarra da, baina urte mordoan darama Basalgon. Auzo lasaia dela dio. Santiago jaiak ospatzen dituzte, eta giro aparta egoten dela esan digu.

Jendeak jakin dezan, non dago Basalgo auzoa?

Elgetarako bidean dago, lehenengo bidegurutzean eskumara hartu eta kilometro bi ingurura dago auzoaren erdigunea. Elgeta, Soraluze eta Mekolalderekin egiten du muga auzoak.

Baduzue auzoa hutsik geratuko den beldurrik?

Bai, badago beldur hori. Kontuan hartu behar da ia baserri guztietan nagusiak bizi garela. Arangurentxon eta Lesarritxan bakarrik daude umeak edo gazteak.

Zein da auzoak duen arazo nagusia?

Egia esan, ez daukagu arazorik Basalgon. Ura ez daukagu Udalekoa; auzoan depositu bat daukagu eta orain dela urtebete berritu egin zizkiguten hodiak. Bestalde, auzoaren behealdean egiten dabilzan industrialdean milioi bat litro ur izango dituen depositu bat egiten dabilza. Hasieran asmoa zen hortik har-tzea ura, eta modu horretan herri-ko ura izango genuke.

Industrialdea egiteko obrek arazoak sortu dituzte?

Industrialde horretarako sarrera ez da Basalgo auzoan egongo, San Juanen egongo da. Baina lanean dabilzan kamioiak gure aldeko errepidetik dabilza; hortaz, errepedea hondatu egin dute.

Zeren beharra sumatzen duzue auzoan?

Adibidez, hemen, eliza parean, autoak aparkatzeko lekua falta da. Pareko lur zatia Udalak ero-

si zuen orain dela urte batzuk eta proiektua ere eginda dago. Gertatzen dena da ez dagoela dirurik lanekin hasteko.

Santiago jaiak ospatzen dituzue Basalgon. Zer egiten duzue?

Gauza asko egiten ditugu: umeendako txirrindularitza iguera egoten da, baita bertsolariak ere, afaria, dantzariak... idi probak ere egin izan ditugu. Auzoan elkartea dagoenez, jende asko ibiltzen da.

Garai batean eskola zegoen auzoan. Noiz utzi zion eskolak emateari?

1964ko irailean utzi zion eskola izateari. Horren ondorioz, auzoko umeek Bergarara joan behar izan zuten.

Ermitak ere bere istorioa du. Azal egizazu.

Lehen, Gotzaindegiarena zen eliza; baina frantsesak sartu zirenean, tropak pagatzeko elizak saldu behar izan zituzten. Auzoak Santiago ermita erosi zuen. Gertatzen dena da mantentze-lanek kostua dutela; horregatik, orain dela urte batzuk Udalarik laga genion eliza. Guk elkartea erabiltzeko eskubidea daukagu.

XV. eliza da eta bere garaian Oñatiko kondeak eman zuen egurra korua eta sabaia egiteko.

Baserriak

- Telleitza
- Olazabal
- Gallastegi
- Gallastegi-Torre
- Amutxastegi-zaharra
- Amutxastegi-berri
- Arangurentxo
- Inarre
- Inarretxe-berri
- Gibondo
- Lonbide
- Iribe
- Santiago
- Mostei
- Lesarri-Aurtengua
- Lesarri-Goikoa
- Belastegi
- Belastegi-Bolu
- Kainburu

Goienkaria

astelehenean, aste bukaera osoa

Harpidedunen txokoa

Abenduko zozketa

SARIAK IRABAZTEKO:

943 08 10 50

harpidetza@goiena.com

Asteleheneko Goienkaria-ko harpidedunentzat soilik.
Harpidetzeko erabili bide berdinak.
Kuota: 10 euro

EUSKARAZKO JOSTAILUAK

Umeentzako euskarazko jostailuak



Itxaro Artola Lizarralde (Arrasate)
Nekane Gabilondo Ugarte (Bergara)
Esteban Barandiaran (Arrasate)
Zezilio Berezibar Altube (Arrasate)
Beñardo Balerdi Gomez (Arrasate)
Rafa Zabaleta Lamariano (Oñati)

ANTZERKIRAKO SARRERAK

Txalo konpainiaren Ate joka antzezlanak.



Jose Antonio Amundarain Arana (Oñati)

UMEENTZAKO LIBURUAK

Pamiela etxearen umeentzako liburuak.



Juanita Artola Lizarralde (Arrasate)

SASKIBALDIRAKO SARRERAK

Lagun Aro - Real Madrid partidurako sarrerak.



Ainara San Vicente Zumalde (Oñati)

EUSKAL SELEKZIOKO ZIRA

Euskal Kirol Federazioen Batasunaren zira.



Gurutze Arizabaleta Okina (Arrasate)

SARI NAGUSIA

IRAILA-ABENDUA

PARTE-HARTZAILE GUZTIEN ARTEAN ZOZKETATU DA
ORDENAGAILU ERAMANGARRIA



Itziar Baltzategi (Bergara)

AHTEC NETBOOK LUG N011

Sistema eragilea: Ubuntu Linux. **Prozesadorea:** 1.6Ghz Intel® Atom N270 Diamondville (533Mhz/512Kb). **Memoria:** 1024MB DDR2 533Mhz (1x1GB). **Disko gogorra:** 120GB 5400RPM SATA. **Pantaila:** 10" pantaila TFT WSVGA LED. **Bermea:** Hiru hilabeteko Standard3 Netbook bermea. Backlight, Webcam, Wireless, Bluetooth.

Laskar Informatikaren eskutik



- Partikular eta enpresei laguntza teknikoa
- Harreman eta ikerketa pertsonalizatua.
- Informatika eta teknologia berrien produktuak.

Etorri eta ikusi gure eskaintza eta promozio guztiak!

Dagoeneko 30 urte bete ditu Komite Internazionalistak taldeak. Elkartasun politikorako erakunde moduan sortu zen 1970eko hamarkadaren amaiera aldera, hain zuzen 1979ko Nikaraguako Iraultza Sandinista taldea sortzeko pizgarria izan zelarik. Orduetik ibilbide luzea egin dute KI-ko kideek. Azaroaren 28an ospatu zuten taldearen 30. urteurrena, Bilbon.

Markos Gabilondo > Komite Internazionalistak-eko kidea

"Laguntza beharra duten herrialdeekin elkarrengandik ikastea da asmoa"

EDU MENDIBIL > BERGARA

Komite Internazionalistak taldeak, hasiera baten, 1980ko hamarkadaren hasieratik, Nikaraguari begira egiten zuen lan gehiena. Latinoamerikako prozesu iraultzaileen garapenarekin batera, beste herrialde batzuetara zabaldu zuten elkartasuna, besteak beste, El Salvadorrera, Guatemalara, Mexikora eta Kubara. Markos Gabilondo bergararrak ondo baino hobeto ezagutzen du taldearen ibilbidea, ia hasieratik KI-ko kidea delako. 30. urteurrena ospatu berri dutela-eta, harekin izan gara.

30 urte igaro dira Komite Internazionalistak taldea sortu zenetik. Helburua orduko bera da?

Bai, elkartasun politikorako erakunde moduan sortu zen Komite Internazionalistak, 1979an, Nikaraguako Iraultza Sandinistarekin batera, eta helburua orduko bera da. Ilusio etapa bat zabaldu zuen Nikaraguako Iraultza Sandinistak; izan ere, frankismoa atzean geldia zegoen hemen, trantsizio politikoko urteak ziren, eta jende askok bat egin zuen Nikaraguako aldaketarako gogo horrekin. Komite Internazionalistak-en eskutik hainbat ekimen bultzatu ziren Nikaraguaren alde; gogoan dut, esaterako, kateorratzen kanpaina bitxia. Oso arrakastatsua gertatu zen. Horrez gain, behar handiak zituen herrialdea zen (eta da) eta ahal genuen moduan laguntzen saiatzen ginen.

Brigadak 1980ko hamarkadaren hasieran jarri genituen martxan eta orduetik jende ugari igaro da brigadetatik. Euskal Herri an milaka lagun izango ziren. Gauza berezi bat dute Komiteen brigadek: joan-etorrikoak direla. Hain zuzen, esperientziak trukatzeko eta ahal den neurrian elkarrengandik ikastea da asmoa, herrien arteko elkartasunezko harremanak eraikitzea. Eta helburu horri eusten diogu oraindik ere, Kuban, Kolonbian, Bolivian, Perun, Mexikon eta Palestinan.

Gaur egun gobernuz kanpoko erakunde piloak dago mundu zabalean lanean...

Bai, egia da. Zentzu horretan gauzak izugarri aldatu dira 30 urteotan. Gobernuz kanpoko erakundeak eta bestelako erakundeak esker aukera mordoa dago gaur. Lehen esan bezala, guk egiten ez duguna ez da lan fisikoa,



Markos Gabilondo Bergaran, Irizar jauregiko lorategian ateratako argazkian.

EDU MENDIBIL

herritarrekin egon, haien familiekin bizi, beraiengandik ikasi eta hemengo egoeraren berri ematea da helburua. Kooperazio hutsaren aurrean, kontzientzia-zioa eta konfrontazioa hautatzen ditugu. Ikuspegi antikapitalista eta antinperialista batetik neoliberalismoari aurre egitea da gure abiapuntua. Beste hainbat elkarrekin agian lan fisikoari ematen diote garrantzia eta Jaurlaritzarekin edo beste erakunderen batekin joan ezker, bidaia eta egonaldia ordaintzen dizute kasu askotan. Gure kasuan, gastu horiek brigadistaren kontura izaten dira.

Zein balorazio egingo zenuke?

30 urte igaro dira lanean hasi ginenetik eta gorabehera asko izan dira tarte horretan, baina orokorrean balorazioa positiboa

BI NORABIDE

"Gauza berezi bat dute Komiteen brigadek: esperientziak trukatzeko joan-etorrikoak direla"

KONTZIENTZIAZIOA

"Kooperazio hutsaren aurrean kontzientzia-zioa eta konfrontazioa hautatzen ditugu"

BRIGADAK

"Brigadetatik milaka lagun igaroko ziren 1980ko hamarkadatik hona"

da. Hanka-sartzeak ere egingo genituen, baina ezinbestekoak dira ikasteko eta aurrera egiteko. Azken baten hemengo ikuspegia erekin eta urtetan barneratutako kontzeptuekin zoaz beste herrialde batera eta orduan ustekabea gerta daiteke, zuretako beharrezkoa den gauzaren bati han garrantzirik ez ematea, adibidez.

Edozein modutan, azpimarragarriena beharbada zera da: oraindik ere lanerako gertu dagoen jendea hurbiltzen dela Komiteetara, tartean gazte asko gainera. Ikusitakoaren arabera, erreleboa badago eta horrek aurrera egiteko indarra ematen digu. Azaroaren 28an 30. urteurreneko ospakizunean 350 lagun inguru batu ginen Bilbon, eta benetan pozgarria izan zen aspaldiko lagun zaharrek topo egitea eta taldea indartsu dagoela ikustea.

Nikaraguan lanean jarraitzen duzue? Garai bateko sandinisten artean ere ahots kritikoak entzun dira aspaldian.

Azken bi urteotan ez da Nikaraguako brigadarekin osatu baina Nikaraguarekin harremanetan jarraitzen dugu eta orain gutxi hango jendea izan da gurekin. Nikaraguako egoera txarra da Haitirekin batera herrialde pobreenetakoa delako. Baina alfabetizazio mailan esaterako lan interesgarria egin da, azken urteotan berritua ere gora egin badu ere.

Hurrengo urtera begira, zein asmo daukazue?

Ahal den herrialde guztietara iritsi, solidaritatea eramanez. Udaberrian iritsiko da brigadak aurkezteko ordua eta aurretik asanblada iritsiko da, otsailean.

Kutxa Inbertsio Irtenbideak



6+ Gordailu berria

6a maite duzenok, ongi etorri.

Hemen duzu 6+ Gordailu berria, zenbait enpresa liderren baloreekin heineratua, zure inbertsioa bermatu eta errentagarritasun handia eskuratzea ahalbidetzen dizuna.


zer nahi duzu bihar?

www.kutxa.net

 **kutxa**

Herriak

Arrasate > 14 Bergara > 16 Oñati > 18 Aretxabaleta > 19 Eskoriatza > 19 Antzuola > 20 Aramaio > 20 Elgeta > 20 Leintz Gatzaga > 20



> **ARRASATE**
Aldai parkeko lanak egubakoitzean bukatu zituzten eta laster zabalduko dute > 14



> **BERGARA**
Gabonetako kontzertua eta 25. urtemugako liburua aurkeztuko du musika eskolak > 16



> **OÑATI**
Argentinaren alde lana egiten duen GKEak bazkide kanpaina abiarazi du egunotan > 18



San Migel jaietan, plaza jendez bete-bete eginda, Olaitturri elkartekoek eskainitako 1542ko Oñatiko hitzarmena ikusten.

MIREIA BIKUÑA

OÑATI > ANTZERKIA

Santa Ana antzokian bigarren aukera, 1542ko hitzarmena ezagutzeko

EMANALDIAK

Abenduaren 26an bi emanaldi eskainiko dituzte: 19:00etan eta 22:30ean

GONBIDAPENAK

Santa Anara sartzeko gonbidapena behar da; arratsaldekoak agortuta daude

DIRULAGUNTZA

Borondatea eskatuko dute emanaldia egin bitartean, Argentinara bidaltzeko

MIRARI ALTUBE > OÑATI

Bigarren aukera dute oñatiarrek eta gainerakoek 1542ko Oñatiko hitzarmena antzezlanaz ikusteko. Abenduaren 26an izango da Santa Ana antzokian eta bi emanaldi eskainiko dituzte: 19:00etan eta 22:30ean. Sarrerarik ez da erosi behar, baina bai gonbidapenak –gehienez hiru bakoitzak–, leku arazorik ez izateko. Kultur etxean dituzte horiek eta dagoneko bukatu dira arratsaldeko emanaldikoak.

ARAZOTXOAK KONPONDUTA

San Migel jaietan aurkeztu zuten Makalena elkarteko kideek 1542an sinatutako hitzarmenaren gaineko antzezlanaz. Jende asko elkartu zen orduan Herriko plazan, baina ikusi gura zuten guztiak ez, eta bigarren saio bat egitea erabaki dute. Oraingoan, barruan izango da, Santa Ana antzokian, eta bozgorailuekin izandako arazotxoak konponduko dituzte.

Herriko plazan erabilitako dekoratua antzokira egokituko dute. Halaxe jakinarazi du Jerardo Elortzak: "Plazan udaletxea

geneukan atzean dekoratu gisa, eta oraingoan izara beltza izango da. Estandarteak jarriko ditugu aurrean eta xehetasunen bat aldatuko dugu, baina besterik ez".

Ikuskizunaren inguruan ibilitako 70 lagunek lanean jarraitu dute eta beste zazpi bat entsegu egin dituzte irailetik hona, Gabonetako ikuskizuna gertu izateko. Taula gainean 24 bat lagun ibiliko dira aurrekoan legez, eta gainerakoek musika, abesbatza eta beste kontu batzuekin lagunduko dute. Aktoerak ahalegin handia egingo dute, bi emanaldi dituztelako hilaren 26an bata bestearen atzetik.

ESANAK

"Aipatzen diren kontu guztiak ez dira 1542an gertatutakoak; XVI. mendeko herri giroa erakustea zen helburua"

Jerardo Elortza > Historialaria

Aurrekontuari dagokionez, 6.497 eurokoa izan zuen iraileko emanaldiak, eta gasturik handienak jantziarena –3.500 euro– eta megafoniarena –2.540 euro– izan ziren. Oraingo emanaldiek, ostera, 1.625 euroko aurrekontua dute.

DIRULAGUNTZA ARGENTINARAKO
Makalena elkarteko kideak 1979an hasi ziren herri antzer-

kiak gertatzen. Orain Olaitturri elkarteak sortu dute gastronomi elkartearen jarduna eta ikuskizunena bereizteko, eta edonondako dituzte ateak zabalik. Antzezlanaz egin bitartean borondatea eskatuko dute Makalena-koei eta Hermansoloña GKE-
rendako izango da. San Migel jaietako emanaldian 800 euro jaso zituzten ikusleengandik.

Hamaseigarren mendeko Oñatiko giroa ezagutarazteko gertatu duten antzezlanaz

Oinarri historikoa du 1542ko Oñatiko hitzarmenak, XVI. mendean zelako herri giroa zegoen Oñatin ezagutzera emateko gertatua. Jerardo Elortza eta Inazio Irizarren artean idatzi eta egokitu dute testua, Oñatiko euskara erabiliz. "Aipatzen diren kontu guztiak ez dira 1542an gertatutakoak, nahiz eta pertsonaia guztiak testuinguru hartakoak izan. Orduko giroaren berri ematen da: kondearen eta alkatearen arteko gorabeherak, Unibertsitateko kontuak...", azaldu du Elortzak. Hala, 1542an Oñatiko herriak Pedro Velez de Gebara kondearekin sinatutako hitzarmenaren gaineko gorabeherak jaso dituzte.

XVI. mendeko kontu horiek gerturatzeko ahalegin handia egin dute pertsonaien jantziekin. Pertsonaia nagusienak berriak dira, alkatearena, kondearena... eta gainerakoak handik eta hemendik jaso dituzte.



Arrasateko Eroski hipermerkatuan egin zuen Harreman elkarteak bidezko merkataritzaren azoka.

JOSETXO ARANTZABAL

ARRASATE > HARREMAN AZOKA

Bidezko merkataritza gertuagotik ezagutzeko azoka

O.E. > ARRASATE

Arrasateko Eroski hipermerkatuan sarreran dagoen Harreman dendak azoka egin zuen Eroskin bertan zapatuan. Bidezko merkataritzako produktuak atera zituzten jendeak probatu eta eros zitzen. Horrekin batera, abenduaren 31 bitartean 10 euro baino gehiagoko erosketa egiteagatik, euro bateko deskontua egiteko txartelak ere banatu zituz-

ten azokara joan zirenen artean. Azukrea, kafea, arroza, txokolatea, kakaoa edo kinua eskaini zituzten. Hain zuzen ere, kinua da hemen ez dagoen zereal bat, baina gero eta gehiagok ezagutzen dutena eta Arrasateko dendak horretan urtean zehar asko saltzen den produktua.

Arrasateko Santamas eguneko ferixan ere egongo da Harreman azoka.



Elkarteen inguruko informazioa ere eman zuten.

JOSETXO ARANTZABAL



Jatekoak, janztekoak eta beste zeuden azokan.

JOSETXO ARANTZABAL

OÑATI > ELKARTASUN AZOKA

Elkartasunak bete zuen Oñatiko plaza zapatu goizean

OIHANA ELORTZA > OÑATI


Guztira, Euskal Herritik etortako 12 erakunde elkartu ziren zapatu goizean Oñatiko plazan Elkar Hezi ikastetxeak antolatutako elkartasun azokan.

Batzuk *Sahara Askatu* zioten kamisetak saldu zituzten eta beste batzuk Ekuador, Bolivia eta Peruko txokolatea eta kafea. Udaletxeko arkupetan henna egin eta egurrezko jostailuekin ibili ziren gustura umeak eta gurasoak, alfombra handi

batzuen gainean. Haien ondoan, Sri Lankako tea eskaintzen zuten bi neskak, hiru te mota. Plazaren erdigunean umeendako ekintzak zeuden eta gura zuenak aukera izan zuen paperezko errota egiteko edo aurpegia margotzeko. Kioskoaren ondoan, berriz, txistorra ogitartekoak ematen zituzten: 70 ogi behar izan zituzten jendearen eskaerari erantzuteko. Egunkaria Libreko kideak ere bazeuden, bono-laguntzak eta kamisetak saltzen.

DONOSTIA - SAN GABRIEL
AQUARIVM

-50%

* DONOSTIA
• Eskaintza: bi erosi eta bat ordaindu**IKER**

OPARIA

* ARRASATE (Bazkidearentzat eta familiako batentzat)
• Sukalde osoa erositak, etxetresna elektriko bat opariCLINICA DENTAL
BERGARA-10%
-15%* BERGARA (Bazkidearentzat eta familiako batentzat)
• -%10 zerbitzu guztietan • -%15 inplanteetan
• 120 eurotik gorako tratamenduetan garbiketa doan

Orain arte Asteleheneko Goienkaria-ren harpidedun izan zaretenok Goiena Klubeko bazkide izango zarete aurrerantzean.

Anima zaitez eta aprobetxatu Goiena Klubaren eskaintza bereziak!
Telefonoa: **943 08 10 50**
Posta-e: **harpidetza@goiena.com**



ETBko platoko harmailetan bezain eroso ez, baina ikusleek adi jarraitu zuten lehiaketa, lurrean eserita nahiz zutik.

J.A.



Etor Larrañaga eta Larraitz Trojaola, aurkezle lanetan.

JOSETXO ARANTZABAL

ARRASATE > PIZTU ERDIGUNEA

14 bikotek parte hartu dute 'Mihiluze' lehiaketa handian

ETBko saioan ibilbide luzea egin duen Larraitz Trojaola izan dute bidelagun

GOIATZ ARANA > ARRASATE
Kulturaren jokatu zen *Mihiluze* lehiaketa erraldoia, zapatuan, 16:30ean hasita. 12 eta 15 urte bitarteko 14 bikotek esku hartu zuten -28 lagunek- eta txukun ari-

tu ziren. SMS, imintzio, hieroglifo, bertso eta beste hainbat proba egin ahala, kanpoan geratuz joan ziren talde batzuk eta lau ailegatu ziren finalera. Telebisitako saioaren itxura beretsuko

lehiaketa egin zuten orduan eta jende mordo bat zen ikustera moduan. Aurrena geratu ziren bi lagunek -Ainixe eta Lierni- ez zuten asmatu euskal musika taldeak zegozkien hamarkadetan

kokatzerako orduan eta ez zuten azken proba gainditu, beraz; baina eurentzako izan zen lehen postua eta Elkar dendarako 100 euroko erosketa txartela irabazi zuten; eta bigarren, hirugarren eta laugarren postuetan geratu zirenek, 50na eurokoa.

Bi ordu luze iraun zuen lehiaketa amaituta, emanaldia egin zuen Selektan Sound System euskal hip-hop taldeak, 150 bat lagun aurrean.

Udalak eta Txatxilipurdik elkarlanean antolatuta zuten zapatuko ekintza, Erdigunea Piztu! ekimenaren barruan. Oso gustura geratu ziren emaitzarekin.

ARRASATE > JOSTAILU TRUKE MERKATUA

Jendea zain, Okendo ludotekako ateak noiz irekiko

G.A. > ARRASATE
Orotara, 170 jostailu jaso dituzte aurten -iaz baino 10 gehiago- eta ia gehienak trukatu dituzte; soberan geratu direnak Gurutze Gorriari emango dizkio Txatxilipurdik. Etxean alferrik ditugun jostailuak berrerabiltzeko aukera paregabea eskaintzen du Arrasateko truke merkatuak eta, urte-tek urtera, indar gehiago hartzen dabil.

ILARA LUZEA
Lehen orduetan izaten da aukerarik zabalena eta, horren jakitun, jende asko joan da aurten, goizean goiz. Okendo ludotekan ipinitako merkatuak atzo goizeko hamarretan zuen irekiera ordua, baina bederatzi t'erdietarako zain zegoen jendea kanpoan. Lehen orduan izan zen mugimendu handiena; behin hori igarota, lasaiagoak izan ziren ondorengoak.



Gurasoek lagunduta aukeratu zituzten jostailuak gehienek.

J.A.

ARETXABALETA > ADINEKOAK

90 urte bete dituzten bost gizon-emakume omendu dituzte

Atzo, domeka, izan zen ekitaldia, Basotxo erretiratuen elkartean. Kantuan egin, trikitixa entzun, opariak jaso eta txokolate beroa edan zuten


G.A. > ARETXABALETA
Ohitura da Aretxabaletan 90 urteko herritarrak omentzea, eta adin horretara ailegatzear daudenak Basotxo erretiratuen elkartetik deia noiz jasoko zain ere egoten dira. Aurten bost aretxabaletarrek bete dituzte 90 urte -hiru emakume eta bi gizon- eta atzo egin zieten omenaldia.

Imanol Arantzabal presidentek hasi zuen ekitaldia, omen-duk zoriontzeko hitz batzuk esanez; opariak banatu zizkieten gero -tokillak eta bufandak-; eta erretiratuen elkarteko koroak saioa egin zuen ondoren. Behin hori eginda, txokolate beroa edan zuten, trikitixaren konpainian. Omendu, lagun eta senitarteko, 150 bat lagun batu ziren Basotxon.



Omenduak, mahaiaren bueltan eserita.

JOSETXO ARANTZABAL



Erretiratuen elkarteko koroak 'Zorionak' abestu zuen.

J.A.

ZERBITZUAK > ALDAIKO PARKEA

Bukatu dituzte Aldai parkeko lanak eta laster egongo da erabilgarri

Datozen egunetan jarriko dituzte umeen ziburuak, farolak eta zakarrontziak eta erremate lan horiek egindakoan erabaki lezake Udalak parkea zabaldu eta herritarrendako erabilgarri jartzea

OIHANA ELORTZA > ARRASATE

Bukatu dituzte Aldai parkeko lanak. Oraindik erremate batzuk daude egiteko, baina lanak bukatutzat eman zituzten pasa den egubakoitzean.

Udaleko teknikariak ere egun horretan izan ziren Aldai parkean, lanak bukatuta dauden eta nola bukatuta dauden egiaztatzen. Obrak egin dituen enpresako langile eta arduradunekin batera egin zuten ikuskapena udal teknikariek. Ikuskatzea bukatu ostean, lanen amaieraren akta sinatu zuten alde bietako ordezkariak.

LASTER ERABILGARRI

Behin lanen amaieraren akta sinatuta, Udalaren esku gelditzen dira parkeko lanak. Horrek esan gura du Udalak erabaki behar duela noiz zabaldu Aldai parkea herritarrek erabili ahal dezaten.

Laster egingo du hori Udalak. Aurretik, baina, falta diren erremateak bukatu beharko dituzte. Oraindik egiteko dauden lanen artean daude, esaterako: umeendako ziburuak, farolak eta zaka-



Aldai parkeko lanak egubakoitzean amaitu zituzten.

O.E.

rrontziak. Datozen egunetan jarriko dituzte falta diren elementuak, lanak egin dituen enpresako obra arduradunaren esanetan.

KANPOSANTU ZAHARREAN

Madrilgo Gobernuaren E planaren bitartez finantzatu du Udalak Aldai parkeko obra. Joan den

urteko urrian onartu zuten proiektua eta aurrez ezarritako epeak errespetatuz, joan den astean bukatu zituzten lanak.

Onartu zuten proiektuak jasotzen duen bezala, Aldaiko kanposantu zaharrean egin dute Arrasateko hirugarren parkea izango dena. Kanposantu zaharrean orubea eraiki dute eta hortxe egokitu dute parke publiko berria. Erdigunean duen diseinuzko estalkia da, akaso, Aldaiko parke berriaren ezaugarri nagusienetako bat. Loneta gogorrekoa da estalkia, tela itxura du eta teilatuaren funtzioa betetzen du. Horren azpian, parkeak eskaintzen dituen zerbitzuetako batzuk egongo dira, tartean, kioskoa. Euria eginez gero, estalkiak babesa emango dio erabiltzaileari.

ARRASATEKO HIRUGARREN PARKEA

Zerbitzu ugari eta berritzaileak izango ditu

Parke handia izateaz gain, izango dituen zerbitzuak ugariak eta berritzaileak izango dira: jolasgunea umeendako, paseatzeko gunea trankil ibili gura duenarentako, estalitako kioskoa, oro har gazte jendearengan pentsatzen egokitu dutena eta ikuskizun bat egiteko balio duena, eta eguzkia hartzeko gune bat. Iturria eta komunak ere izango dira parkean, baita umeendako egokitutako komunak ere.

Zerbitzu berritzaileen artean solarium zerbitzua da, dudarik gabe, aipagarrienetakoa. Izan ere, parkeko zenbait gunetan eguzkia hartzeko txokoak ipiniko dituzte; espazio libre hori lortzeko, zenbait gune zuhaitz barik utziko dituzte.

Aldaiko parkearen mugak dira: Aldai Gain, Santa Marina, Aldai eta Maalako okindegia zegoen lekuan egin duten etxe berria.

ZERBITZUAK > OZTOPOAK KENTZEN

Bota dituzte traban zeuden zuhaitzak

Azkenak herenegun (zapatua) bota zituzten, Aldai parkean: hiru altzifre (zipres) eta izei bat

UBANE MADERA > ARRASATE

Zortzi konifero bota ditu Arrasateko Udalak egunotan. Joan den astelehenean hasi eta zapatuan bota zituen azkenak. Hain justu, Uribarri etorbideko (hiru), Araba etorbideko autobus geltokiaren ondoko (bat) eta Aldai parkeko (lau) koniferoak bota dituzte. Lanok egiteko 8.088,24 euro erabili ditu Udalak.

Zuhaitzok botatzeko arrazoia da tamaina handikoak izanda trabak eragiten hasita zeudela: zuhaitzok mantentzeko orduan, zahartuta zeudelako, etxeetatik gertuegi edo etxeen teilatuen gainetik pasata zeudelako.

Zuhaitzok bota aurretik, auzo edo atarietan abisuak ipini ditu Udalak eta inguruko bizilagunekin batzarrak egin ditu.



Zapatu goizean ibili ziren langileak Aldaiko zuhaitzak botatzen.

GOIENKARIA

> NAGUSIAK

Immersoren oporraldietan izena eman daiteke

Bainuetxeetara joateko izenemate epea zabaldu du Immersok: otsailetik abuztura joateko, urtarrilaren 16ra arte; eta irailtik abendura joateko, maiatzaren 16ra arte.

> INGURUMENA

Material bilketa egingo du gaur espetxe pastoralak

Espetxeratuekiko pastoralak material bilketa egingo du gaur, astelehena, Iturriotz kaleko 43. zenbakian, 17:00etatik 19:00etara.



lazko irabazle izan zen Otamendi harategiaren aurtengo erakusleihoa. J.B.

ZERBITZUAK > GAZTEAK

Barrutik itxuraldatuta zabalduko ditu ateak gaur Gazte Bulegoak

Margotze, apainketa eta lekualdaketa lanak egin dituzte, batez ere; abenduaren 4tik 11ra egon da itxita eta egun horietan zerbitzua BAZera pasatu dute

eremua banatu eta espazioa hobeto aprobetxatzeko. Horrez gain, margotze eta apainketa lan aipagarriak ere egin dituzte, egoitzari "irudi berritua" emateko asmoz.

GABONETAN, ZERBITZUA GUTXIAGO Urtero moduan, Gabonetan ordu-tegi berezia izango du Gazte Bulegoak. Hilaren 18ra arte ohiko ordutegiarekin egongo dira, bai-

na hurrengo astetik aurrera itxita egongo da, hilaren 23an eta 30ean izan ezik.

MUSIKA LIBREA EZTABAIDAGAI Bestalde, joan den egunean herriko zenbait musikari eta musikazalek mahai-ingurua egin zuten musika librearen gainean. Besteak beste, *copyright* eta *copyright* kontzeptuen arteko ezberdintasunak izan zituzten berbagai.

SANTAMASAK > ERAKUSLEIHO LEHIAKETA

Merkatariek izena emateko azken eguna dute bihar

Abenduaren 16rako muntatu behar dira erakusleihok, orduan hasiko da-eta lehiaketa

J.B. > ARRASATE

Hastear da azken urteetan Santamasetako egitarauan eztaba- daezina izan den erakusleiholehiaketa. Bihar amaituko da izena emateko epea eta eguaztenterako parte-hartzaileek muntatuta izan beharko dute euren erakusleihoa, orduan hasiko da-eta lehiaketa. Sari banaketa hilaren 21ean izango da.

SANTAMAS ETA GABON GIROA

Urtero moduan, aurkezten diren erakusleihotan honako ezaugarriak hartuko dira kontuan: irudimena, originaltasuna, publizitate-mezuaren baliagarritasuna, erakusleihorearen itxuraren kalitatea eta Santamas eta Gabon giroarekin duen zerikusia. 750 euro banatuko dira hiru onenen artean.

JOKIN BEREZIARTUA > ARRASATE

Gazte Bulegoa itxuraldaketa lanean egon da abenduaren 4tik 11ra bitartean. Ohiko egoitza itxita egon bada ere, herritarrek eta, batez ere, gazte arrasatearrak ez dira Gazte Bulegoaren zerbitzu barik geratu. Izan ere, betiko ordutegian ez izan arren, zerbitzua BAZen eskaini dute.

ALDAKETA, BARRUTIK

Kanpotik ez da itxuraldaketa handirik nabaritzen. Erabiltzaileak gaur, astelehena, izango du aldaketaz ohartzeko aukera, barrura sartzen denean.

Dorleta Kortazar Gazte Bulegoko teknikariak adierazi duenez, obraren helburu nagusia "lekua hobeto aprobetxatzea" izan da. Hala, lekualdaketa nabarmenak egin dituzte, lan



Joan den astean hainbat lan egin zituzten Gazte Bulegoaren egoitza barruan. J.B.

OSPAKIZUNAK > SANTAMASAK

Egitarau mardula Santamas eta Gabonetarako

Olentzero berritasunekin dator abenduaren 24an, 18:00etan: gozoki bereziekin (zeliakoendako) eta ibilbide berriarekin

UBANE MADERA > ARRASATE

Hasi dira saltzen Santamasetako bazkarirako txartelak, 15 eurotan, Monte, Kajoi, Basati eta Bengoa tabernetan. *Krixis Bi* txerri protagonista astelehenean, abenduaren 21ean, aurkeztuko dute. Eta Santamas azokan izango diren baserritar, artisau, ganaduzale eta bestelakoak ere badabilta azken lanak egiten produktua Arrasatera ekartzeko. Halakoak azaldu zituzten Santamas eta Gabonetarako egitarauaren aurkezpenean, joan den egunean.



Ihitz Bengoa, German xxx eta Izadi Mondragon Gallastegi Santamasetako egitaraua berri ematen.

GOIENKARIA

Egile berriak egindako kartela (Iban Galan Fuentes), Santamasetako egutegia eta eskuko egitaraua aldean, Santamas Komisiñoko kideek eta Udaleko ordezkariak egin zuten egitarau mardularen

aurkezpena. Etzitik (eguztena) abenduaren 31ra arteko ekitaldiak iragarri zituzten. Hain justu, etzi, Emakume Baserritarren Elkarteak (EBEL) hitzaldia egingo du Kulturategi areto nagusi-

sian, 19:00etan. *Emakume baserritarra baserriz baserri* da izenburua. Eguenean, berriz, beste hitzaldi bat izango da: *Artzaintza Euskal Herrian*, Fermin Leizaolaren eskutik. Eta hitzaldi sorta

bukatzeko, egubakoitzean Martin Mendizabal izango da hizlari, *Euskararen jatorrizko sustraiak* hitzaldiarekin.

Asteburuari begiratuta, boulder txapelketarekin batera nabarmentzekoak dira, adibidez, 12:30ean plazan egingo duten Garesko eta Artaxoako laiarrien erakustaldia eta 13:00etan jardungo duen Bermeoko irrintzi taldea; eta baita domekako Amaiaiko bertso saioa ere: Andoni Egaña, Maialen Lujanbio, Jon Maia, Erika Lagoma eta Igor Elortza.

GEHIGARRIA, DATORREN ASTEAN

Santamasei dagokienez, berriz, azoka tradizionala, artisauak, herri kirolak, pilota partiduak... antolatuko ditu Komisiñuek. Herritarrek gonbidatu gura dituzte "abarkak, txapela, zapia, gerrikoa eta gainontzeko osagarriak soinean hartuta Arrasateko kaleak betetzera". Xehetasunak egubakoitze-ko (abenduaren 18ko) GOIENKARIAren gehigarrian.

KULTURA > MUSIKA

Musika Eskolakoek lau kontzertu emango dituzte urtea amaitzeko

Egubakoitzean Gabonetako kontzertua egingo dute Udal Pilotalekuan eta zapatuan 25. urtemugako liburua aurkeztuko dute

MONIKA BELASTEGI > BERGARA

Gabonei begira hitzordu ugari-ekin datoz Musika Eskolako ikasleak. Gaur, astelehena, hasi eta hilaren 20ra arte bost ekitaldiko zerrenda zabala prestatu dute. Bergarako ikasleek ez ezik, Antzuolatik Bergarako Musika Eskolara datozenek ere urte osoan barrena zenbat ikasi duten erakusteko aukera izango dute gaur, astelehena, Antzuolako Torresoroa aretoan, 18:30ean egingo duten Gabonetako kontzertuan.

Organo eskolako ikasleek ere egingo dute kontzertua asteen. Aurten hasi da Musika Eskola organo eskolak ematen, eta Santa Marina parrokiako sakristau etxean izaten dira eskolok. Kontzertua ere hantxe izango da, eguenean, 18:30ean.



Urtero bezala, Udal Pilotalekuan egingo dute kontzertua.

GOIENKARIA

GABONETAKO KONTZERTUA

Egubakoitzean, hilaren 18an, egingo dute, Udal Pilotalekuan, 18:30ean. Emanaldian talde hauek izango dira: Suzuki taldea, hasiberrien abesbatza, akordeoi orkestra, txistu taldea, haurren abesbatza, orkes-

tra sinfonikoa eta gazteen banda. Emanaldiaren lehen partean talde horietako bakoitzak bakarka jardungo du; bigarrenean, berriz, ia guztiek elkarrekin jardungo dute eta joko dituzte Oskorriren -Angel Brizen moldaketekin- *Salamankara*

eta *Ala Kinkiri, Ala Kunkuru* piezak, Kemen Bediaunetaren zuzendaritzapean.

25. URTEMUGAKO LIBURUA

Hilaren 19an, zapatuan, *Bihotz alaia dugulako...* (25 urte musika ikasten eta irakasten) izeneko

liburua aurkeztuko dute. Liburua idatzi du Manu Diazek eta batzen ditu Bergarako Musika Eskolaren 25 urteak. Argazkiez Valen Moñux arduratu da eta euskarazko itzulpenaz, berriz, Rosa Narbaitza. 200 orrialde inguru eta 300 argazkitik gora ditu.

Egitaraua**14, egubakoitza**

18:30 Antzuolako ikasleen Gabonetako kontzertua, Torresoroan.

17, eguena

18:30 Organo ikasleen emanaldia, Santa Marinako sakristau etxean.

18, egubakoitza

18:30 Musika Eskolako Gabonetako kontzertua, Udal Pilotalekuan.

19, zapatua

12:30 *Bihotz alaia dugulako...* liburua aurkeztuko dute, osoko bilkuren aretoan.

20, domeka

12:00 Azkoitiko Gabonetako abesbatzen topaketan parte hartuko dute.



JOSETXO ARANTZABAL

Dagoeneko zabalik dago San Joxepe egoitza

Eguaztena ezker zabalik dago San Joxepe erretiratuen egoitza. Azaroaren 9an itxi zuten berrantolatze lanak egiteko eta dagoeneko bukatuta daude; baita egoitzaren ia zerbitzu guztiak martxan ere -taberna, jangela, ile-apaindegia eta podologia zerbitzua-. Liburutegia eta informatika gela datozen egunotan zabalduko dituzte. San Joxepe eguneko zentroarekin partekatzen du eraikina eta eguneko zentroa handitzeko lanak izan dira San Joxepe erabiltzen duen espazioa berrantolatze arrazoia.

POLITIKA > EUSKAL PRESOK

Jabi Lazkano eta 'Bixkai' espetxez aldatu dituzte

Senitartekoak zortzi egunez egon dira presoon berri izan barik

M.B. > BERGARA

Azken asteotan herriko bi euskal preso espetxez aldatu dituztela salatu du Presoen Aldeko Taldeak. Inaki Arieteleanizbeaskoa *Bixkai* Frantzian dago espetxeratuta eta Osnyko espe-

txetik Meuxera eroan dute. PATEk azpimarratu du senitartekoek hura ikusteko 850 kilometro egin beharko dituztela aurrerantzean. Jabi Lazkano, berriz, Alcazar de San Juandik Zuerara (Zaragoza) eroan dute, etxetik 400 kilometrora.

PATEk salatu du bi espetxe aldatetok iraun bitartean senideek ez dutela telefono deirik ezta bisitarik egiteko aukerarik izan eta zortzi egunez egon direla presoon berri izan barik.

oharrak

BATZARRA

> Taila eskolak urteko batzarra

Hilaren 16an egingo dute, 19:00etan, elkartean Zabalotegin duen egoitzan.

UDALA

> 2010eko egutegia kaleratu dute

Hormarako egutegi handia kaleratu du Udalak. Egutegiok

herri osoan banatuko dira. Herriko etxe, denda eta taberna guztietara bidaltzeko ahalegina egingo dute, baita baserrietara ere. Postontzietan sartzeko egutegia tolestu beharra dagoen kasuetan, alboan lagako dituzte. Jasotzen ez duenak hilaren 28tik aurrera eska dezake Udaltzaingoa.

LEIRE KORTABARRIA > BERGARA

Zientzia, Teknologia eta Gizartea Euskal Herriaren Argien mendean delako erakusketaren harira, Udaleko, Euskal Herriko Unibertsitateko, Euskal Herriaren Adiskideen Elkarteko eta UNEDeko ordezkariak ekitaldia egingo dute egunean, hilak 17, eta tartean, Pascual Roman Polo (Tauste, Zaragoza, 1947) EHuko Kimika Ez Organikoko katedradunak hitzaldia egingo du.

Aurreratuko diguzu esango dituzun batzuk?

Erakusketa bisitatuko dutenei, ikusten dutena hobeto aprobetxatzeko balioko dieten kontuak azalduko dizkiet. Ikuspegi orokorra emango dut ilustrazioak hemen izan zuen garrantziaz, Euskal Herriaren Adiskideen Elkartearen eskutik. Pertsonaia garrantzitsueneguz egingo dut berba: Peñaflores kondeaz eta Narros markesaz, elkarte sortu zutenak. Zientzia eta teknologia garapenak asko arduratzen zituen, eta ilusio handiena pizten zuen proiektua zen Errege Seminarioaren ingurukoa. Oso garrantzitsua da, jende askok ez dakielako Bergaran inteligentzia zentral bat sortu zutela.

Eta wolframioa isolatu izana hortik etorri zen...

Alboko emaitza bat izan zen. Euskal Herriaren proiektua Itsas Armada ministroarekin egindako hitzarmenari esker finantzatu zen: batetik, *laboratorium chemicum* delako laborategia; bestetik, bi katedra, bat Kimika eta Metalurgiarena eta bestea Mineralogia eta Lur Azpiko zientzia; eta mineral gordailu bat.

Bestalde, Euskal Herriaren Adiskideek bi espioi nahi zituzten. Pertsonaia garrantzitsu batzuk zeuden operazio horretan: Itsas Armada ministroak bere lagun Jose Domingo de Mazarredo itsasgizon ospetsuari idatzi zion, eta eskatu zion bi espioi topatzen lagun ziezaien, Eskozian, Carron-en, ingelesek zeuzkaten kanoi fabriketan sartzeko. Espioi zientifiko lanak egiteko, prestatuena Elhuyar anaia zaharrena zen, Juan Jose.

Pascual Roman Polo > Kimikan katedraduna eta Euskal Herriaren Adiskideen Elkarteko kidea

"Wolframioa da penintsulan isolatu den elementu bakarra, eta ez da besterik isolatuko"



Pascual Roman EHuko katedraduna.

GOIENKARIA

Zelan garatu zen plan hura?

Juan Jose Elhuyarrek 23 urte besterik ez zuen orduan, eta Bergaratik abiatu zen, gero Parisera, eta Saxoniako meatze-eskola batera ailegatu zen. Fausto anaia gazteagoa berarekin joan zen, ikasten ziharduen Mineralogia eta Lur Azpiko Zientzietan katedradun gisa. Horrekin guztiarekin, helburua zen Bergaran meatze-eskola bat ipintzea, hango ikasle-

"Wolframioa isolatzea alboko ondorio bat izan zen, baina oso garrantzitsua"

"II. Mundu Gerran metal estrategikoa izan zen, tankeen aurkako jaurtigaietan erabilia"

ek Espainiako eta Mundu Berriko meatzeetan jardun zezaten, urrea eta zilarra ateratzen.

Zelan bukatu zen abentura?

Hainbat urte elkarrekin eman ondoren, Faustori etor zedin eskatu zioten Euskal Herriaren Adiskideek, bere katedraz ardura zedin; Juan Josek bakarrik jarraitu zuen bidaia, eta Suediara, Uppsalako Unibertsia-

tatera ailegatu zen; eta han, Torbern Olov Bergman garaiko kimikari handienetarikoa batekin ikasi zituen metodo eta teknika oso erabilgarriak. Izan ere, garai hartan, Bergman eta bere lankidea wolframioa isolatzeko lanean zebiltzan, baina ez zuten lortu. Azkenean, baina, Juan Josek etxera bidaltzen zituen emaitzak ez ziren ministroaren gustukoak, eta 1782an Juan Jose-ri ere itzul zedin agindu zioten.

Eta wolframioa isolatu zuten hurrengo urtean...

Bai. 1783an, bi anaiek bat egin zuten Bergaran. Juan Josek ekarri zituen ezagutzekin eta wolframita mineralarekin, oso denbora txikian -ekainetik irailera bitartean-, wolframioa isolatzea lortu zuten. Oso emaitza garrantzitsua izan zen Euskal Herriarako; izan ere, penintsulan inoiz isolatu den elementu bakarra da, eta inoiz ez da beste elementurik isolatuko, behar diren teknika eta diziplina askotako lantaldeengatik.

Wolframioaren gaineko bitxikeriarik kontatuko diguzu?

Adibidez, boligrafoen puntako bolatxoa wolframioz egiten da; bestalde, II. Mundu Gerran, tankeen aurkako jaurtigaien muturra blindatzeko erabiltzen zen, metal estrategikoa zen. Eta 1983an, wolframioa isolatu zen bigarren mendeurrenean, Elhuyar anaiei omenezko seilua argitaratu zen, kimikaren inguruan Correos-ek egin duen bakarrenetarikoa.

JENDARTEA > ELKARTASUNA

Argentinarako jostailuak eta zapatak batuko dituzte

Aranzadi ikastolak bigarren urtez aterako du kalera elkartasun ekintza hori; hilaren 19an plazan egingo dute batzea

L.K. > BERGARA

Premiak dituzten Argentinako herriekiko elkartasuna erakusteko aukera izango dute bergarrek datorren zapatuan, hilak 19. Egun horretan, goiz osoan, Aranzadi ikastolako irakasle,

ikasle eta guraso talde batek Argentinako Jose C. Paz herri-rako eta laguntza beharra duten inguruko beste herri batzuetarako jostailuak eta oinetakoak batuko ditu. Horiek eman nahi dituzten guztiak San Martin plazara hurbildu eta han izango diren Aranzadiko ordezkariak eman besterik ez dute.

Denetarikoa oinetakoak hartuko dituzte, ume zein helduendakoa eta edozein motatakoak.

IAZ, LEHENENGO ALDIZ

Bigarren urtez zabaltzen diote herri guztiari elkartasun ekintza hori Aranzadikoek; iaz arte, ikas-

tola barruan egiten zuten. Aurtun, ikasleek dagoeneko eraman ditzakete ikasgelara eman nahi dituzten produktuak.

Iaz, esperientzia ona izan zuten, antolatzaileetako batek, Aintzane Ugaldek, dioenez: "Jendea etorri zen produktuak ematera; eta oinetako-denda batek zapata pare asko eman zizkigun".

GKE BATEKIN

Elkartasun ekintza hori Oñatiko Hermansoloña Gobernu Kanpoko Erakundearekin batera egiten du Aranzadik. Batutako produktuak kamioian kargatu eta GKeri eramango dizkiote.



Iazko produktu-batzean ateratako argazkia.

ARANZADI IKASTOLA

ELKARTASUNA > AURKEZPENA

Bazkideak egiteko kanpaina abiaraziko du Hermansoloñak

Bazkide izan gura dutenek urtero 300 euroko kuota ordaindu beharko dute

GKEk barikuan egin zuen aurkezpena eta proiektu berriak aurkeztu zituen

MIREIA BIKUÑA > OÑATI

Izena aldatu diote, baina atzean dauden pertsonak berberak dira. Hermansoloña gobernuz kanpoko erakunde berriak egubakoitzean egin zuen aurkezpena herriarren artean. Izen berriarekin, baina betiko aurpegiak. Alegia, orain dela urte batzuk Argentinako Elkartasun Taldea sortu zutenak. Aurkezpenean egon ziren GKEren presidente Mari-bel Elortza; diruzain eta idazkari Jose Antonio Urteaga; presidenteorde Socorro Peña; eta beste hainbat kide.

GKEren nondik norakoak azaldu zituzten, eta esan zuten bazkide berriak egiteko kanpaina martxan jarriko dutela. Bazkide egin gura dutenek, urtero, 300 euroko kuota ordaindu beharko dute, eta diru horrekin gazte baten aitabitxi izateko aukera izango dute. "Bazkideak beharrezkoak ditugu aurrera egiteko. Datorren urtean diru gutxiago jasoko dugu erakunde publikoetatik. Hamar bazkide nahikoak dira edukiontzi bat ordaintzeko, eta 2010ean hiru bidali gura ditugu", esan zuen aurkezpenean Jose Antonio Urteagak.



Hermansoloñako kideek parte hartu zuten egubakoitzeko aurkezpenean.

JOSETXO ARANTZABAL

Bazkide egiteko interesa dutenak Hermansoloñako kideekin hartu-emanetan jar daitezke lehenbailehen.

ESANAK

"Argentinako proiektuak lau zutabe ditu eta horietako batek kale egiten digunean, proiektu barik geratuko gara"

Jose A. Urteaga > Hermansoloña

DIRULAGUNTZA GEHIAGO

Argentinako Elkartasun Taldea GKE bilakatzeko emandako pausoaren arrazoia azaldu zituzten:

DATUA

30
BOLUNTARIO

Hermansoloñaren zutabeetako bat boluntarioak dira. Astero 12 lagun ibiltzen dira Bidebarrietako kalean, baina erretiratuen eta kolaboratzaileen laguntza dute.

"Proiektu potoloak ditugu esku artean, eta diru asko behar dugu. GKE moduan laguntza eskatu ahalgo dugu Foru Aldundian, Eusko Jaurlaritzan eta inguruko udaletan". Dena den, elkarteak hiru urte bete arte ezingo dute laguntzarik eskatu.

LAU ZUTABE

Laguntza proiektu moduan hasitakoa handitzen joan da urteotan, betiere, lau zutabe nagusiren gainean. "Udala, Ulma, boluntarioak eta herritarrak dira lau zutabe nagusiak. Batek kale egiten digunean, proiektua bertan behara geratuko da", esan zuten.

HIRIGINTZA > ALDAKETAK

Oñatiko mapa toponimiko berria

Auzo batzuetako planoak eta Ugarkalde eta San Martin gunetako informazioa jaso dute

M.B. > OÑATI

Oñatiko Udalak herriko mapa toponimikoa berriro argitaratu du eta herriko etxe guztietara banatu dute *Kontzejupetik* aldizkariarekin batera.

Askotariko informazioa bildu dute; besteak beste, herriko baserrien eta erreken izenak, kaleak eta etxebizitzaren zenba-

kiak. Era berean, herrian egin dituzten azken etxebizitzaren inguruko informazioak –Ugarkaldeko eta San Martingo etxeak– ez da falta. Guztira, 1.000 bat izen jaso dituzte. Gainera, herri osoko mapa toponimikoaz gain, herriguneko eta Zubillaga, Olabarrieta eta Arantzazu auzoetako planoak ere jarri dituzte.



Mapa toponimikoan askotariko informazio bildu dute.

M.B.

> GAZTEAK

Irteerak Donostiara eta Bilbora, gaztelekuarekin

Gazteleku arduradunek Gabonetako egitaraua gertu dute. Egingo dituzten ekitaldien artean bi irteera daude: hain zuzen ere, hilaren 29an Donostiako Aquariumera eta izotz pista eta urtarri-laren 4an Bilboko Gabonetako parkera.

Parte hartu gura dutenek gazteleku bertan eman behar dute izena, Donostiako irteerara joateko hilaren 18a baino lehen; eta Bilbokora joateko 24a baino lehen.

> KULTURA

Gabonetako ekitaldietarako sarrerak salgai

Gabonetarako iragarrita dauden ekitaldi batzuetarako sarrerak salgai daude dagokien kultura etxean; hain zuzen ere, Juan Carlos Irizarren kontzerturako sarrerak bost eurotan eta Makalenakoen herri antzerkirako sarrerak doan.

Bestalde, Ganbara Txiki- ren ipuin musikalerako eta *Patata tortilla* umeen antzerkirako sarrerak gaur bertan jarriko dituzte salgai.

oharrak

DEIALDIA

> Bizikidetzako hobetzeko tresnen gaineko hitzaldia

Eguneroko gatazkak eta familia bizikidetzako hobetzeko tresnei buruz egingo dute berba bihar Pake Lekun, 17:00etan. Pilar Legarra eta Nilda Gorvein izango dira hizlariak.

DEIALDIA

> Txistor-jana egingo dute erretiratuek

Pake Lekun txistor-jana egingo dute egunean. Aurretik, astero moduan, 17:00etan, bingo jokoa egingo dute. Festa amaitzeko dantzaldia egingo dute.

DEIALDIA

> 'Checkpoint rock' dokumentala kultura etxean

Elkar Hezi ikastetxearen eskutik, Fermin Mugurutzak eta Javier Corcuera egindako dokumentala emango dute eguaztenean, 19:30ean. Gainera, Palestinan egondako bi oñatiarrek euren esperientzia kontutako dute.

ZINEMA

> 'Cuento de Navidad' egunean zineklubean

Arnaud Desplechinen pelikula emango dute kultura etxeko aretoan, 20:00etan.

GIZARTEA > ABENDUAK 16

Preso daudenen senideendako laguntzak gertu

Udaletxean dagoen eskaera orria bete eta Gizarte Zerbitzuetan aurkeztu behar da etzi baino lehen

MIRIAN BITERI > ESKORIATZA

Eguaztena, abenduak 16, da espetxean preso daudenen senideentzako banakako garraioa dirulaguntzak eskatzeko azken eguna. Udaletxean dagoen eskaera orria bete eta hori Gizarte Zerbitzuetan aurkeztu beharko da. Aurtengo aurrekontuetan 2.000 euroko partida aurreikusita dago horretarako.

Euskal Autonomia Erkidegoetik kanpo kartzelaraturik dauden pertsonen senideei haiek bisitatzeko bidaia gastuak ordaintzen laguntzeko Eskoriatzako Udalak eman ahal izango dituen dirulaguntzen oinarriak argitaratu zituzten joan den astean.

Laguntza horien onuradunak honakoak izango dira: ezkontidea edo izatezko bikotea, seme-alabak, gurasoak eta neba-arrebak. Onuradun bakarra egongo da preso bakoitzeko. Gainera, laguntza eskatzen duten senideek zein pre-

soek Eskoriatzan erroldatuta egon beharko dute.

KILOMETRO BAKOITZEKO 0,1 EURO

Jaso beharreko kopuruari dagokionez, oinarriek diote Eskoriatzatik espetxera dauden kilometroak (joan-etorria) 0,10 eurogatik biderkatutakoak izango direla. Laguntza horien gaineko informazio gehiago gura dutenak abenduaren 10ean argitaratutako Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala konsulta dezakete.

MATERIAL BILKETA

Bestalde, Espetxe Pastoralta Martutenen preso daudeneneko material bilketa egiten dabil. Besteak beste, honako hau behar dute: barruko arropa berria, galtzerdiak, Telefonicareen pinik gabeko telefono txartela, hortzetako pasta eta hortzetako zepilloak, kartazalak, sei luak eta turroi biguna.



MUSIKA ESKOLA

Herriko hiru akordeoi-jotzaile izan dira Arrasaten

Ohikoa den moduan, Eskoriatzako musika eskolako ikasleek abenduko lehen asteburuan Arrasaten izandako XVII. Arrasate Hiria akordeoi lehiaketan parte hartu zuten. Herriko hiru akordeoi-jotzailek emanaldia egin zuten, Gipuzkoako, Euskal Herriko eta nazioarteko akordeoi-jotzaile onenekin batera. Lan bikaina egin zutela esan dezakegu, behin lortutako emaitzak ikusita. Nerea Bastardo hastapeneko B multzoan aritu zen eta urrezko domina irabazi zuen egindako lanagatik. Hastapeneko A multzoan, berriz, Henar Valor eta Itziar Unanue akordeoi-jotzaileek urrezko eta zilarrezko dominak eskuratu zituzten, hurrenez hurren. Goiko irudian, akordeoi irakaslea eta hiru ikasleak Eskoriatzako musika eskolan, dominak eta diplomak eskutan dituztela.

ARETXABALETA > BERTSOAK

Afarirako izenematea zabalik

Loramendi elkarteak bertso-afaria gertatu du Murualde elkartearen egubakoitzerako

MIRIAN BITERI > ARETXABALETA

Aretxabaleako Loramendik urteroko bertso-afaria egingo du egubakoitzean, abenduak 18. Euskara elkartetik jakinarazi digutenez, horretan izena emateko epea oraindik zabalik dago; interesatuek etzi, eguaztena, arte izango dute apuntatzeko aukera.

Txartelak Loramendi elkartearen bertan daude salgai, 20 eurotan. Horrekin batera, azaldu dute plaza mugatuak direla: "60 besterik ez da; hortaz, gomendatzen dugu izena ahalik eta azkarren ematea". Txartelak Loramendira bertora joanda eskura daitezke; edo 943 77 09 70 telefono zenbakira deituta.

PEÑAGARIKANO ETA LIZASO

Aurtengo afarian luxuzko bi gonbidatu izango dituzte Aretxabaletan: Anjel Mari Peñagarikano eta Sebastian Lizaso bertsoariak. Giro bikaina emango diote haiek afalondoari.



Sebastian Lizaso bertsolaria izango da, Peñagarikanorekin batera.

GOIENKARIA

21:00ETAN, MURUALDEN

Loramenditik azaldu dutenez, afariaren hitzordua dagoeneko jarrita dago. Esan bezala, egubakoitzean izango da, 21:00etan, Murualde elkartearen. Menua ere zehaztuta dago: plater nagusi moduan, entsalada mistoak eta

oilaskoa gertatuko dituzte; eta postrerako, berriz, intxaurrek eta menbrilloa gertu izango dituzte bertso-afarira joaten direnek. Peñagaritanok eta Lizasok bertso ederrak botatzen dituzten bitartean, kafea eta txupitoak egongo dira.

> ARETXABALETA

Lurreko Telebista Digitalaren gaineko argibideak ematen dituen autobusa egongo da gaur goizean

Lurreko Telebista Digitalaren gaineko argibideak emateko autobusa Aretxabaletan izango da gaur goizean (09:00-13:00). Autobus horretan, Red.es enpresak telebista analogikotik digitalerako saltoaren gaineko kezka guztiak argituko dizkie herritarrei. Beste bi egunetan ere etorriko da autobus hori Aretxabaleta: abenduaren 18an arratsaldean (16:00-19:00) eta abenduaren 28an goizean (09:00-13:00).

> ARETXABALETA

Basotxok urtarrilean Bilbora irteera antolatuko batzarra egingo du gaur arratsaldean, egoitzan

Aretxabaleako erretiratuen elkarte Basotxok bazkideak deitu ditu gaurko, 18:00etan, egoitzan. Batzar horretako gai nagusia izango da guztien gustukoa den Bilbora irteera antolatzea. Jakinarazi digutenez, irteera hori urtarrilaren hirugarren astean egitea aztertuko dute, besteak beste.

oharrak

ARETXABALETA

> Urkulu elkarteak estatutuen aldaketaz jardungo du asteen

Aretxabaleako Urkulu elkarteak batzarra egingo du zapatuan, abenduak 19, elkartearen bertan. Lehen deialdia 15:30ean izango da eta bigarrena, 16:00etan. Batzarreko gai nagusia elkartearen estatutuen aldaketa da. Elkarteak parte har dezatela eskatu die bazkide guztiei.

Hirusta
Jatexea

Ilargi plaza 4
943 79 06 57
ARETXABALETA



Kanpoko bisitariak Eugenio Otsoa gatz museoa.

M.A.

LEINTZ GATZAGA > TURISMOA

Turismoa indartuta kanpoko bisitariak ekarri gura dituzte herrira

Arlaban gainera plan berezia egindakoan turismo-jarduerak kokatzeko lurra izango dute Gatzagan

MIRARI ALTUBE > LEINTZ GATZAGA

Turismoarekin zerikusia duten ekitaldiak indartzea eta jarduera berriak bultzatzea gura dutela jakinarazi zuen Eusebio Villar

alkateak Goiena telebistako *Alkateak zuzenean* saioan, egunean. Debagoieneko bisitariak izaten dituzte gehienbat Gatzagan eta kanpokoak ekarri gura dituztela esan zuen Villarrek. Horregatik „helburuen artean dituzte gatz museoa egokitzea eta Arlaban gainera plan berezia burutzea.

TURISMORA BIDERATUTAKO LURRA

Landagipuzkoa egitasmora egin zuen dirulaguntza eskaera Udalak Arlabango plana aurrera eramateko, eta oniritzia jaso zuten.

Proiektu hori egiteko, baina, ura behar da Arlabanen eta ur depositua egitea Gatzagan inguruan dute aurreikusita: "Proiektua egiten dabilta eta aurrekontua 650.000 eurokoa izango da", jakinarazi zuen. Gatzagainen dauden azpiegiturak ez ukitzeko zelan moldatu proiektu hori pentsatzen dabilta orain.

Turismoarekin zerikusia duten jarduerendako izango da Arlaban gaina, plana egindakoan: "Turismoko arduradunekin egon gara eta esan digute turismora

bideratutako lurra jartzen duen lehen herria garel". Alkateak ez zuen jakin esaten zein eratako jarduerak garatuko diren bertan, diru pribatuarekin egingo dituztelako: "Guk ez dugu zeresanik izango". Baina jakinarazi zuen Jakion kontserbagintza enpresa herrian geratzea gurako luketela, herriko industria bakarra delako: "Eta Arlaban leku egokia izan daitekeela uste dugu".

GATZ MUSEOA EGOKITZEA

Gatz museoa indartzea da beste asmoetako bat; berogailua jarri dute eta laster izango da martxan. Bestalde, museoaren sarrera eta harrera gune bihurtu gura dute Santa Kolunba ermita: "Bideoak ikusteko aretoa, ikasleendako mahaia... jarriko genituzke". Baina, lehen faseko lanak oraindik bukatu barik daude –teilatua dago berrituta– eta bigarren fasekoak hasteko ez dute dirurik, Estatu Fondoko bigarren dirulaguntza –28.000 euro– gutxi delako.

ARAMAIO

LTDren autobusa Aramaion izango da

Itzalaldi analogikoaren gaineko informazioa emango dute

ARRITXU BARRUSO > ARAMAIO

Araban urriaren 30ean egin zuten itzalaldi analogikoa eta eskualde gehienetan dagoneko lurreko seinale digitalaren bitartez ikusten dute telebista. Aramaion, berriz, abenduaren 31n itzaliko da seinale analogikoa; baita Amurrión, Artziniegan, Aiaran, Laudion eta Okondon.

Nahiko kezka eta buruhauste eragiten dituen gaia da itzalaldi analogikoa. Kezka horiek guztiak argitzeko autobus informatiboa izango da Aramaion datozen egunotan. Abenduaren 15ean eta 17an Bañera parkean egongo da, 16:00etatik 19:00etara bitartean. Urtarrilaren 9an berriro ere etorriko da, herriko plazara, eta, hain zuzen, 09:00etatik 13:00etara egongo da bertan.

ELGETA

Berdintasun plana lantzeko bilera gaur

Hirugarren eta azken bilera egingo dute gaur 18:00etan udaletxean

LARRAITZ ZEBERIO > ELGETA

Bi ordu inguruko bilera izango da, Berdintasun plana diseinatzeko herrian egingo den hirugarrena. "Plana osatu duten ekintzak proposatu eta lehenetsiko dira", aurreratu du Elhuyar Aholkularitza zerbitzuko Ainara Ibañezek. "Diseinu-faseko azken bilera izanik, berdintasun planaren oinarriak finkatuko dira bertan".

Plan horretarako herri-tar guztien esku-hartzea bilatzen dute bultzatzaileek. Gaia inguruko hausnarketa bultzatzea, eta gizon eta emakumeen arteko aukera-berdintasuna hurbilduko duen ekintza-plan bat eratzea dute helburu. Interesatuek 18:00etan dute gaur hitzordua udaletxean.

ANTZUOLA > KIROLA

Bed's etxeak babestuko du infantil mailako futbol taldea

Antzuola Kirol Elkarteko infantil mailako futbol taldea babestuko du Arrasaten eta Bergaran koltxoak saltzen dituen Bed's etxeak. Hala, laguntza eman nahi dio Antzuolako futbol harrobiari. 14 mutikok dihardute Mikel Lizarazu eta Kepa Etxaniz entrenatzaileen esanetara, eta, zortziko futbolekin lehen urtea izanik, ari dira hobetzen pixkanaka.



JOSE ANGEL FERNANDEZ

Kirola



> FUTBOLA

Aloñaren gol bakarra ez da nahikoa izan Real Unioni irabazteko > 23



> ERRUGBIA

Arrasateko senior mutilek ezin izan dute Gasteizko Gaztedi menderatu > 24



> BOULDER

Elkarrizketa Euskal selekzioko hautatzaile Joxean Mulasi > 27

BERGARA > PIRAGUISMOA

Hotzari aurre eginda, giro polita izan zen bigarren Kayak Festan

SLALOM PARALELO

Bi jokalariren arteko norgehiagoka da, bizkorrena nagusi

UR GUTXI IBAIAN

Aurten ur gutxi zeukan Deba ibaiak eta proba motzagoa egin zuten

MIRARI ALTUBE > BERGARA

Beti-Busti elkarteko kideek 30en bat kayak jokalariek elkartzea gura zuten zapatuan, hilak 12, egindako bigarren Kayak Festan. Azkenean Irungo Santiagotarrak elkarteko kideek ezin izan zuten etorri, baina Donostiako Athletico San Sebastian elkartekoek eta Beti-Bustikoek lehiaketa polita jokatu zuten.

PROBA MOTZA ETA BIZKORRA

Arratsalde hotza izan zen zapatuko eta ur gutxi zekarren Deba ibaiak; gainera, Bideberri inguruko lanak zirela-eta, bazterrak trabaz beteta zeuden. Hala ere, oztopo guztiei aurre egin eta 20ren bat neska-mutilek jardun zuten norgehiagokan ibaian. Slalom paralelo izeneko proba jokatu zuten, Estatuan egiten den bakarra. Aritz Ginbert bergarar gazteak zelan jokatzeko azaldu zuen: "Bi piraguisten arteko



Kayak jokalariek slalom paralelo proba jokatzeko zapatuan arratsaldean.

JOSETXO ARANTZABAL

norgehiagoka da, toki berdinetik joan behar dira biak zintzilik dauden makilei buelta emanaz, eta lehenak irabazten du". Abileziak eta bizkortasunak bat egiten duten proba da, bizkorra eta ikusgarria. Aurten, baina, ibilbide motzagoa jarri dute ur gutxi zegoelako.

ESKERRAK LAGUNTZAILEEI

Festaren helburua piraguaren inguruko zaletasuna sortzea zen; era berean, elkartearendako dirua batzea. Eta urtean zehar lagundu dieten guztiei eskerrak eman zizkieten Beti-Bustiko kideek.

Oskar Lizarralde > Beti-Busti elkarteko kidea "Giroa piztea eta gazteak elkartzea izan da helburua"

M.A. > BERGARA

Beti-Busti elkarteko ekonomia arduraduna pozik zegoen festarekin.

Gustura, bigarren Kayak Festarekin?

Bai. Festa jarritako ingurua ez dago txukun Bideberriko lanak direla-eta, baina helburua giroa

piztea zen eta gazteak elkartzea, eta uste dut bete dugula.

Eguraldi hotza tokatu zaizue eta ur gutxi ibaian...

Bagenekien, urte batzuetan egoten da ura eta hurrengoan gutxiago; natura halakoa da.

Hala eta guztiz, pozik?

Bai, bertan igual jende asko ez da elkartu, baina laguntza handia jaso dugu: dendak...

Herrian gora egin du zaletasunak?

Lehen lau ginen, orain 12 eta lau ikasten; 25 izatera iritsi gura dugu.



JOSETXO ARANTZABAL

Japoniako teknologia aurreratuena

ECHO



Haize-makina arina: bakarrik 6,10 kilo

HAIZE-MAKINAK
eskuzkoak eta bizkarrean eramatekoak

Informazio
gehiagorako:

943 76 31 52



comercial BRUNET

Telleria 2, Labegarieta BERGARA Tel.: 943 76 31 52 - Faxa: 943 76 70 12
brunett@telefonica.net • www.comercialbrunet.com



Haize-makina katalizatzailearekin
CDI piztea
Pizte erraza

XACOBEO 2010
GaliciaEskaintza, 2009ko azaroaren
26tik abenduaren 16ra arte**EROSKI**40 zurekin
urtewww.eroski.es
Entzuten zaitugu: 902 540 340

Irudia eta soinua • Entretenimendua • Etxetresna elektrikoak

TEKNOLOGIA

LG TV LCD 32" FULL HD
bereizmen handiko sintonizatzailea
✓ Kontraste dinamikoa: 50.000:1
✓ Smart Energy Saving
✓ Idulki birakaria

39,92 € hilean
TIN: 0%
UTB: %2,03
Komisioa: %1 (4,79€)*
Finizatutako prezioa: 483,79€

12 HILABETETAN INTERESIK GABE[®]
EROSKI TXARTELAREKIN ORDAINDUTA

479 € bermearen luzapena 4 urtetara 49€-gatik

ORDAINDU

12
HILABETETAN
INTERESIK
GABE
UTB: 2,03%
%1 komisioa

**ZURE EROSKETAK ELEKTRONIKAKO,
ELEKTRO-ETXEKO ETA AISIALDIKO PRODUKTUETAN**

* Santander Consumer Finance S.A.k eskaintzen du finantzaketa eta EROSKI red Visa txartelaren bidez onartu behar da. Finantzaketa 12 hilabetetan. Urteko interes-tasa nominala %0. 299 €tik gorako erosketetan. Ordainketa atzeratzearen komisioa (%1) lehenengo kuotan ordaintzen da. Ordainketak hilaren 5ean likidatzen dira. UTBa kontratazio egunaren arabera alda daiteke. 2010ko urtarrilaren 6ra arte indarrean izango da. RBE: 2861/09. EROSKIk finantzatzen ditu interesak.



OHOREZKO ERREGIONALA > 13. JARDUNALDIA

Iñigo Arregiren gola ez da nahikoa izan partidua irabazteko

Mondra eta Oiartzun taldeen aurka jokatuko du Aloña Mendik urtea bukatu aurretik

ALOÑA MENDI

1-2

REAL UNION

Aloña Mendi > Oier, Jon, Roberto, Aritz, Mikel P., Iñigo (Moia 73. min), Xabi (Astigarraga 79. min), Josu (Aramendi 86. min), Mikel I. (Torres 67. min.), Mikel S. eta Iker (Loiti 62. min.).

Real Union > Beñat, Subiza, Eneko, Jaume, Montes, Aiert (Martin 55. min) (Jon 92. min), Moha (Illart 67. min.), Markel, Elviral, Pitu eta Arostegi (Adrian 87. min).

Epaileak > Epalea Tejadas eta laguntzaileak: Gomez eta Agirre. Talde bakoitzak txartel bana jaso zuen.



Aloña Mendiko jokariak baloia kontrolpean duten momentu baten.

JOSETXO ARANTZABAL

OIHANA ELORTZA > OÑATI

Elur bisutsa zen goitik behera Aloña Mendi eta Real Union taldeen partidua hasi zenean. Elurra eta hotza. Partidua ikustera joan ziren herritar apurrak ere ondo jantzita eta aterkia zabalik zutela hasi ziren norgehiagoka ikusten. Ikusle gehienek, hori bai, aterpetik jarraitu zuten partidua, gutxi ikusi zuten harmailetatik. Jokalariek ere naba-

ritu zuten hotza, Real Union taldeko jokari batek eskularruak jantzita jokatu zuen partidua.

Etxeko taldea fin ibili zen. Ondo jokatu zuen baina ez zituen aukerak aprobetxatu. 25. minutuan sartu zuen lehen gola Real Unionek. 10 minutu beranduago, Aloña Mendiren aldeko gola sartu zuen Iñigo Arregik eta bana-ko berdinketarekin heldu ziren atsedenaldira.

BI TXARTEL BAKARRIK

Bigarren zatian ere izan zuen aukeraren bat edo beste etxeko taldeak, baina ezin golik sartu. Partidua bukatzeko ordu laurden falta zela, 1 eta 2koa sartu zuen kanpoko taldeak, eta emaitza horrekin bukatu zen domeka arratsaldeko norgehiagoka.

Joko garbia egin zuten talde biek. Epaileek bi txartel baino ez zituzten atera: 48. minutuan

kanpoko taldeko Aiertendako eta 70. minutuan etxeko taldeko Mikel Sanchezendako.

Partidu hasieran minutu bateko isilunea egin zuten Azkoagainen orain gutxi hil den Eugenio Arriolaren izenean; Arriola Aloña Mendiko jokalaria izan zelako bere garaian.

Datorren astean Mondraren aurka jokatuko du Aloña eta 24an, Oiartzunen kontra.

3. MAILA > 13. JARDUNALDIA

Joko txarra eginda galdu du UDAK Portugaleten

Igor Gordobil entrenatzailea haserre bueltatu zen ez zutelako maila eman

PORTUGALETE

4-0

ARETXABALETA

O.E. > BERGARA

Puntu barik eta haserre bueltatu ziren etxera Portugaletetik Aretxabaletako futbol taldeko jokariak. 4 eta 0 galtzeaz gain ez zuten euren joko maila erakutsi, eta horrek haserretu du, batez ere, Gordobil entrenatzailea.

Gordobilen esanetan, ondo hasi ziren jokatzen, baina ez zuen asko iraun: "Lehen 30 minutuetan ondo ibili gara, golak sartzeko aukerak ere izan ditugu, baina huts bat egin eta erabat okertu da gure jokoak. Eta ez diogu buelta eman. Ez dugu inondik gure maila eman, eta horrek haserretarazi nau gehienbat".

GOLA, ETXEKO ATEAN

Minutu baten bi gol egin zizkion Portugaletek Aretxabaletari. Emaitza horrekin joan ziren atsedenaldira talde biak. Baina bigarren zatia ez zen hobea izan Gordobilen taldearendako. Hirugarren gola etxeko atean sartu zuen UDAK eta laugarrena etorri zen gero. Amurrio eta Agurainen aurka jokatu behar du UDAK urtea bukatu baino lehen. Ea emaitza hobek lortzen dituzten.

FUTBOLA

Puntu bat baina joko ona Bergarak

O.E. > BERGARA

Husna egin zuten Bergarak eta Pasaiak zapatu arratsaldean Agorrosinen. Puntu bakarra lortu zuten etxekoek, baina pozik zeuden, batez ere egindako joko onagatik. "Lehen zatian mendean izan gaituzte, baina bigarrenengo geu izan gara nagusi. Golak sartzeko aukerak ere izan ditugu, adibidez, Markel Lizarbek postea jo duenean, baina izugarri ondo jokatu dugu eta horrek berrindartu egin gaitu guztiok", adierazi du Manu Diaz entrenatzaileak. Real Union eta Mondraren aurka jokatuko du Bergara k urtea amaitu aurretik.

FUTBOLA

Joko ona eta hiru puntuak Arrasatera

O.E. > BERGARA

Jokoan zeuden hiru puntuak poltsikoan sartuta bueltatu ziren Mondra taldeko jokariak, entrenatzaile eta laguntzaileak Donostiatik. 0 eta 1 irabazi zion Mondrak Beriori domeka goizean. "Hamarrerekoa merezi du taldeak. Lan bikaina egin du. Defentsan oso ondo ibili dira jokariak eta Berio baloia kontrolpean eduki arren, ez du golik egiteko aukerarik izan", dio Andoni Azkargorta entrenatzaileak. Datozen bi partiduetan Aloña eta Bergara- ren aurka ditu Mondrak.

Futbola

OHOREZKO ERREGIONAL MAILA

Sailkapena	Punt.	Jokat.
1. Ondarroako Aurrera	34	14
2. Pasajes	32	14
3. Zarautz	28	14
4. Oiartzun	23	14
5. Ordizia	22	14
6. Tolosa	22	14
7. Idiazabal	22	14
8. Berio	21	14
9. Bergara	19	14
10. Trintxerpe	19	14
11. Hondarribia	17	14
12. Euskalduna	16	14
13. Hernani	15	14
14. Mondra	15	14
15. Aloña Mendi	14	14
16. Real Union	12	14
17. EHU Vasconia	11	14
18. Beti Gazte	8	14

Emaitzak

Tolosa - Hondarribia	1-1
Bergara - Pasajes	0-0
Aloña Mendi - Real Union	1-2
Berio - Mondra	0-1
Aurrera - Oiartzun	1-1
Euskalduna - Hernani	1-0
Trintxerpe - Ordizia	0-0
E.H.U. Vasconia - Zarautz	1-2
Idiazabal - Beti Gazte	2-1

Hurrengoak

Real Union - Bergara
Mondra - Aloña Mendi

BESTE KATEGORIAK

HIRUGARREN MAILA

Prtugalete - Aretxabaleta	4-0
---------------------------	-----

GAZTEEN LIGA NAZIONALA

Real Union - Aretxabaleta	3-1
---------------------------	-----

GAZTEEN EUSKAL LIGA

Baskoni - Bergara	2-2
-------------------	-----

LEHENENGO ERREGIONALA

Mondra	Atsedenaldira
Uda Arizmendi - Bergara	3-2

GAZTEEN OHOREZKO MAILA, KOPA

Union Txiki Touring - Aloña Mendi	4-1
Orioko - Mondra	1-0

GAZTEEN LEHEN MAILA

Urola - Arizmendi	3-3
Bergara - Aretxabaleta Arizmendi	1-1

OHOREZKO KADETEAK, IGOERA

Zumaia - Bergara	0-1
Lengokoak - Aretxabaleta	2-1

OHOREZKO KADETEAK, KOPA

Aloña Mendi - Lazako	2-3
----------------------	-----

KADETEEN LEHENENGO MAILA

Bergara - Arrasate	0-7
Arizmendi - Aloña Mendi	0-1
Elgoibar - Aretxabaleta	2-0

EMAKUMEZKOEN LIGA

Aloña Mendi - Amaikak Bat	2-5
Elgoibar - Bergara	0-1



Akatsak akats, ikusi genituen Arrasate Errugbi Taldeko mutilen jokaldi onak ere.

GOIENKARIA

ERRUGBIA > EUSKADIKO LIGA

Arrasateko senior mutilek ezin izan dute Gaztedi menderatu

Gasteizkoek 19-41 emaitzarekin irabazi zuten neurketa, aparteko erakustaldirik ez egin arren. Etxekoen hutsak erabakigarriak izan ziren

GOIATZ ARANA > ARRASATE

Ondo hasi ziren Arrasateko mutilek: lehen bost minutuetan, 7-0 jarri ziren aurretik. Baina berehala galdu zuten jarrera lehiako-

rra, huts egin zuten behin eta berriz eta Gaztedik erraz eman zion buelta markagailuari. 7-22an zegoen, lehen zatia bukatu eta atsedenera joan zirenean.

Lehen zatian moduan, bigarrenean ere, Arrasatekoak izan ziren entsegua egiten lehenak, baina segituan etorri zen aurkariena ere eta gozoa gazi bihurtu zen berriz. Etxekoen ez zuten egonkortasunik aurkitu eta arabarrek aise lortu zuten garaipena (19-41). "Balo gehiegi oparitu dizkiegu eta euren aprobetxatu egin dute, ez digute barkatu. Bai-



Etxekoak, aurkarien erasotik ihesian.

GOIENKARIA

na ez nuke esango euren irabazi dutenik; guk galdu dugu" esan zigun Igor Isasi entrenatzaileak. Isasik bazekien zapatuko norgehiagoka gogorra izango zela: "Gaztedi talde jaitsi berria da, ahalik eta azkarren igotzea du helburu eta lider da uneotan".

Arrasatekoek ez zuten emaitza alde izan, beraz, baina pozik daude egindakoarekin, kontuan

izanik lehen itzulian Gasteizkoek hutsean utzi zituztela. Lan eginez, akatsak zuzentzea dute orain helburu. Hurrengo partidua urtarrean jokatu dute, Elorrioren.

Nesketan, Durango-Arrasatek ez zuen partidurik jokatu, Atletico San Sebastianek ez zituelako nahikoa jokalarik. Bost puntu lortu zituzten, bonusarekin.

Goiena 10 urte: 2000-2010 Ospa dezagun guztiok batera!

Abenduaren 21eko **Asteleheneko Goienkaria**-rekin batera, Goienako egutegia opari!



ESKUBALOIA > ASTEBURUKO EMAITZAK

Ibarreko gizonen taldeek bina puntu eskuratu dituzte etxetik kanpora

Ford Mugarri Arrasate, Soraluze BKE eta Izarraitz Aloña Mendik lortu dituzte garaipenak; ez horrela Verkol Aloñako neskek

G.A. > BERGARA

Ford Mugarri Arrasatek Zumarragan neurtu zituen indarrak, Urola Laztiren kontra. Galtzen hasi ziren -4-0, lehen partzialan-, baina 12. minutuan jokoa berriz eman eta etenik gabeko gorako bidea hasi zuten. Lortutako abantailarekin kontzentrazioa galdu zuten jokalariek eta nor bere aldetik ibili ziren, talde jokoa egitetik urrun, baina Urola Lazti talde gaztea da eta erraz hartu zuten mendean (28-40). Datorren asteburuan Urdulizen aurka jokatu dute, eta arrasatearrek badute kezka, bizkaitarrena ez delako jokorako batera kantxa erraza.

Soraluce BKEk 24-35 irabazi zion Eibarko Haritzari. Defentsa zabala egin zuten eta aurkariak ez zuten asmatu hori apurtzen. Azken boladako partidurik erra-



Ford Mugarri Arrasate erasoan, denboraldiko partidu baten.

GOIENKARIA

zena izan zen bergararentzat. Izarraitz Aloña Mendik ere, bere aldetik, garaipena lortu zuen, Donostiako Egiaren kontra.

Verkol Aloñako neskek, aldiz, galdu egin zuten Basaurin (28-18). Indar denak defentsan galdu eta huts egin zuten jaurtiketetan.

SASKIBALOIA > MONDRAGON UNIBERTSITATEA

Bikain hasi arren azkenean galdu

Hamahiru puntuko aldearekin hasi zen irabazten MU, baina 17 saskiratze libre huts eginda ezin irabazi partidua

MIKELDI

81-76

MONDRAGON UNIBERTSITATEA

MIRARI ALTUBE > ARRASATE

Irabazteko gogoz joan ziren MUko jokalariek Bilbora, aurkari zuzena duten Mikeldiren etxera. Eta lehen hiru minututan dagoeneko 13 puntuko aldea zuten, etxeok ez zutelako saskiratzerik lortu. Baina hutsartea eskatu zuen Mikeldiko entrenatzaileak eta horren ostean indartuta atera ziren bilbotarrak. Hala ere, puntu bateko aldearekin bukatu zuten lehen laurdena MUkoek (19-20).

Bigarren zatia oso berdinduta hasi zuten, baina gero 3 eta 11ko partziala egin zuten defentsa lanei esker eta Arantzabal bikain ibili zelako. Hala, bigarren laurdena bukatzerakoan ere markagailua alde zuten arrasatearrek (35-40).

SASKIRATZE LIBREETAN HUTS

Hirugarren laurdenean, baina, kontuak aldatu egin ziren. Etxekoek bat egin eta saskiratzeetan asmatzen hasi ziren. Hala, bukatzerako lau puntu goitik zeuden (61-57).

Azken laurdenean hiru minutu behar izan zituzten MUkoek lehen saskiratzea lortzeko. Horren ostean gogor borrokatu zuten eta azken partziala aldekoa izan arren (0-4), ez zen nahikoa izan irabazteko (81-76). MUko ordezkariak azaldu zuten partidua gakoan non egon zen: "17 saskiratze libre huts eginda, oso zaila da irabaztea".

ZAPATUAN, GOIERRI VERKOL

Zapatuan, hilak 19, Goierri Verkol hartuko du MUK etxean (19:00). Zaleen animuek berotuko dituzte jokalariek Iturripen.



LARRAITZ ZEBERIO

Aurkeztu dute Emakumezkoen Gabonetako IV. futbol txapelketa

Arizmendi kirol elkarteko arduradunek eta Realeko, Eibarreko eta Debagoieneko selekzioko ordezkariak Emakumezkoen IV. Futbol Txapelketa aurkeztu zuten egubakoitzean. Txapelketaren garrantzia azpimarratu zuten hiru ordezkariak eta antolatzaileek egiten duten lana goraiatu, "emakumezkoen futbola gero eta indar handiagoa hartzen dabilelako". Hilaren 26an infantil eta kadete mailako neskek jokatu dute eta 27an, lau talderen arteko txapelketa izango da: Reala, Eibar, Lagunak eta Debagoieneko selekzioa.



dks '09
debagoieneko
II. kirolsariak

Debagoieneko kirolaren sari banaketa ekitaldia

Eguna: Abenduak 18 ostirala
Lekua: Santa Ana aretoa (Oñati)
Ordua: 19:00etan

➔ www.kirolsariak.com

ANTOLATZAILEAK



Aretxabaletako Udala



OÑATIKO UDALA



LEINTZ GATZAGAKO UDALA



ARAMARKO UDALA ARABA



ELGETAKO UDALA

BABESLEAK



"la Caixa"



anpazar obate

— harrobiak —



MONDRAGON UNIBERTSITATEA

LAGUNTZAILEA



Goiena

Komunikazio Zerbitzuak

arteman

KOORDINATZAILEA

KOMUNIKAZIOA

ARRASATE

Zapirugbian jokatu zuten zapatuan gure gaztetxoek

UMEZ GAINEZKA Soilik lau talde egon ziren arren, gaztetxo asko bildu ziren Mojategiko zelaian

GIRO POLITA Ikuskizun polita izan zen zapatukoa eta bukaeran elkar txalotu zuten gaztetxoek

GURASOAK ERE PRESENTE Umeak ez ezik gurasoak ere animatu ziren Mojategira hurbiltzen

NAROA ODRIUZOLA > ARRASATE

Zapatuetan goiz esnatzera ohi-tuak daude gure gaztetxoak. Izan ere, zapaturo eskola kirola izaten dute. Oraingoan, goizeko hamarretan bildu ziren Arrasateko Mojategiko zelaian Leintz Eskola Kiroleko gaztetxoak. Lehen hezkuntzako hirugarren eta laugarren mailako neska-mutilak izan ziren partaidea.

Kirol desberdin asko egin dituzte dagoeneko, eta zapatuko txandan zapirugbian aritu ziren. Agian, pertsona askorentzat kirol ezezaguna izango da zapirugbia, baina umeentzat ez da kirol berria. Izan ere, aurreko urtean ere kirol horretan jardun zuten.

Errugbiaren antzeko kirola da zapirugbia. Baloia kontrako taldearen eremura eraman behar dute gerrian dituzten bi zapiak babestuta.

UME ASKO, BAINA TALDE GUTXI

Beste batzuetan saio desberdinak egoten dira goiz osoan zehar. Baina zapatuan, zapirugbiko saio bakar bat egonenez, ume asko bildu ziren Mojategiko zelaian. Guztira lau talde osatu zuten gaztetxoek: Kurtzebarri, Arimazubi, Almen eta Herri Eskola taldeak, alegia.

Giro polita egon zen gaztetxo-en artean eta partidua bukatu ondoren, elkar txalotu ziren umeak.

Umeez gain, gurasoak ere hurbildu ziren Mojategiko zelaira. Gaztetxoak jokatzen ikustez gain, animoak ematen aritu ziren hainbat guraso.



Kurtzebarri. Iker, Aritz, Eneko, Ibai, Jokin eta Daniel.

N.O.



Almen. Atzean: Ander eta Jon.
Aurrean: Unai, Endika, Asier, Iker eta Hodei.

N.O.



Arrasateko Herri Eskola. Koldo, Martxel, Ibai, Julen, Itsaso, Unai eta Peru.

N.O.



Arizmendi. Markel, Jaime, Gari, Jon, Beñat, Ekaitz eta Aitor.

N.O.

GUSTUKO DUZUE ZAPIRUGBIA?



Gari, Ekaitz eta Jon
Arimazubi

Gari, Ekaitz eta Jonen esan zigitenez, gustuko dute zapirugbia dibertigarria iruditzen zaielako eta jokatzen ondo pasatzen dutelako. Hala ere, saskibaloia eta futbola dira hiru mutil hauen kirol gustukoena. Zergatik? "Golak sartzen ditugulako". Diotenez, ondo jokatzen dute futbolarik. Egia izango?



Daniel, Eneko, Jokin eta Aritz
Kurtzebarri

Daniel, Eneko, Jokin eta Aritzek adierazi zigitenez, "zapirugbia dibertigarria da". Laukoteak gustuko du kirol hau eta beste taldekoei zapiak kentzea gogoko dute. Aurten lehenengoa aldia da kirol hori egiten dutela, baina beste urteetan ere aritu dira zapirugbian eta, jada, lau aldiz jardun dute Zapirugbian.



Beñat
Arimazubi

Bere taldekoak jokatzen zeudela harrapatu genuen Beñat. Esan zigitenez, berak ere gustuko du zapirugbia, baina saskibaloia da bere kirol gustukoena. Beñatentzat ere, ez zen jokatzen zuen lehenengoa aldia.



Martxel, Ibai eta Itsaso
Arrasate Herri Eskola

Partidua bukatu ondoren, elkartu ginen Martxel, Ibai eta Itsasorekin. Adierazi zigitenez, "gustuko dugu zapirugbian jokatzea". Hala ere, esan zigitenez, futbola da kirolik gustukoena hirukote honentzako eta aukera duten guztietan kirol honetan aritzen dira,

Joxean Mulas > Seleksioko hautatzailea

"Munduko txapeldunetik auzokora, helburua ondo pasatzea da"

XABIER URTZELAI > ARRASATE

Joxean Mulas (Arrasate, 1963) lanpetuta ibiliko da hilaren 19an Arrasaten egingo duten Euskadiko Boulder Txapelketan, antolatzaile lanean ibiliko diren Debagoieneko Eskalatzaileak taldeko gainontzeko kideak moduan. Horrekin batera, Mulas Arrasaten dagoen Gipuzkoako teknifikazio zentroko arduraduna da, eta baita Euskal selekzioko hautatzailea ere.

Zer nolako txapelketa izango dugu hilaren 19an?

Oso ona, hori espero dut. Euskal Herriko eskalatzaile onenak izango dira gurean. Besteak beste, iazko txapeldun Joseba Saiz gasteiztarra egongo da. Eta, Aritz Dominguez, Antxon Zabala, Mikel Ziarrusta... Eta noski, baita Arrasateko eskalatzaileak ere; tartean Markel Mendieta lehiatuko da, orain dela hiru aste BEC-en egindako Bizkaiko txapelketan hirugarren sailkatu zena.

Santamasetako txapelketak beste pauso bat emango du aurten.

Bai. Euskal Federazioak azken urteotan ikusi du Santamasetako txapelketa zelan joan den hazten, eta iazko arrakastaren ondoren, aurten hemengo txapelketa Euskadiko Txapelketa bilakatzeko proposatu ziguten. Hala, sortu berri dugun klubarendako erronka polita da.

Debagoieneko Eskalatzaileak taldeko presidente zaitugu, baina baita Euskal Seleksioko hautatzaile ere. Ez da izango erraza erabakitzea nor gertzen den selekzio kanpoan eta nor barruan.

Ez pentsa horren zaila denik, eskalatzaileek asko errazten didatelako lana. Kontutan izan Euskal Herrian eskalatzaileok familia handi bat garela, eta oso ondo

konpontzen gara gure artean. Gutako inor ez da eskaladatik bizi, eta selekzioarekin lehiatzea polita bada ere, eskalatzaileek eurek esaten didate txapelketara joateko moduan dauden ala ondokoa eurak baino hobeto dagoen.

Urte hasieran 25 eskalatzaile inguru batu genituen asteburu baten Eginon (Araba), eta federazioak zituen asmoen berri eman nien. Gutxieneko konpromisoa eskatu nien, esaterako, Kopa hasten zuenak amaitu zezala, eta neurri handian eurek egin zuten hautaketa.

Kategoria guztiak eramaten dituzu.

Bai, eta emakumezkoen kategorian zailtasunak izaten ditugu taldeak osatzeko, eta gazte mailan ere arazoren bat edo beste izan dugu. Kontua da baloratu egin behar dugula eskalatzaileak zelan dauden, txapelketako helburu nagusia gozatzea eta ondo pasatzea izaten delako, eta horretarako ondo egotea komeni delako.

Patxi Usobiaga ere selekzioarekin joaten hasi da.

Bai, eta egia da irabazteko baino gehiago duela galtzeko. Patxi-rekin harreman oso estua daukat, gaztetan nirekin hasi zelako eskalaten, baina garrantzitsua da Usobiaga tarteka selekzioarekin etortzea, gazteendako, batez ere. Horrela talde giroa ere sustatzen dugu; izan ere, azken urteotan hori galdu egin da euskal selekzioan.

Eta, munduko eskalatzaile onena Debagoieneko Eskalatzaileak taldeko kide izatea ere ez da gutxi.

Beno, Patxi Usobiaga gure artean ibili da beti. Eta, txapelketak direla-eta nekatuta dabilenean taldeko eskalatzaileekin etortzen da eskalatzera, asteburu bat hortik zehar pasatzera, eta berak onartzen digun moduan, pilak berriro beteta itzultzen da lanera.

Abenduaren 19an Usobiaga Arrasaten egongo da?

Ez dut estutu nahi, badakidalako beste konpromiso batzuk ere badituela. Iaz ere Santamasetako txapelketa egin genuenean Madrilen egon behar zuen, kirolariekin egiten duten afari



Joxean Mulas, egueneko prentsaurrekoa baino lehenago.

XABIER URTZELAI

batean. Baina, aitzakia bat jarrita Arrasatera etorri zen txapelketa antolatzen laguntzera. Aurten afari horretan egon beharko du. Beragatik balitz, hura hemen egongo litzateke gusturago.

Elite mailako txapelketaz gain, kategoria herrikoia ere izango da hilaren 19ko txapelketan.

Bai, herritarren artean arrakasta handia du txapelketak. Elite mailako kirola bultzatzeko

"Eskalatzaileek esaten didate txapelketetarako ondo dauden ala ez"

"Txapelketekin nekatuta dabilenean gurekin etortzen da Patxi Usobiaga, berriro ere pilak kargatzeko"

gaude, baina baita maila herrikoia ere.

Arrasaten duzue EAEko teknifikazio zentroetako bat, eta badabil emaitzak ematen.

Hemengo eskalatzaileak estatu mailako txapelketetan trofeoak irabazten dabilta, baina hori ez da garrantzitsua. Munduko txapeldunetik auzoko txapeldunerraino, helburu nagusia kirol honekin ondo pasatzea da.

"Euskal Herriko onenak etorriko dira"

Debagoieneko Eskalatzaileak taldeko Mikel Castillo, Euskadiko federazioko ordezkari Antxon Burcio eta Ternuako komunikazio arduradun Unai Artetxe izan ziren eguenean egin zuten aurkezpena: "Dagoeneko urtebete daramagu talde moduan lanean, eta orain arte txapelketa hau lagun koadrila moduan antolatu dugu. Oraingoa, baina, Euskadiko Txapelketa izango da, eta Euskal Herriko onenak izango dira Arrasaten", adierazi zuen Mikel Castillok.



Antxon Burcio, Mikel Castillo eta Unai Artetxe, Import Arrasateko dendan.

x.u.

"Arrasateko boulderra txiki geratu zaigu, jende mordoia ibiltzen delako bertan"

"Entrenatzen dabilzan eskalatzaile batzuk beste herri batzuetara joaten hasi dira"

GABONAK / JOSTAILUAK

Jostailuen materialera eta aurrekontura ere iritsi da krisia

Sinpleagoak dira aurten jostailuak, eta jendeak ditu gutxiago aurreikusi du opari horietarako

Eroskik gida atera du adin bakoitzarendako, jostailurik aproposena zein den jakinarazteko

OIHANA ELORTZA > ARRASATE

Turroiaren sasoia Gabonak diren moduan, jostailuena ere badela esan daiteke. Izan ere, sasoi horretan saltzen dituzte jostailu dendek produkturik gehienak. Olentzerok jasotzen dituen eskutitz gehienetan ere

horixe eskatzen dute umeek, jostailuak.

JOSTAILU EGOKIENA

Askotan, baina, ez da erraza izaten ume bakoitzarendako jostailu aproposena bilatzea. Zalantza horiek argitu guran, Eroskik umeendako jostailu gida atera du, adin bakoitzaren arabera zer oparitu behar den eta zer ez jakinarazteko. Bideo-jokoan gida ere kaleratu du.

Eroskik kaleratu dituen gida horretan lau multzotan agertzen dira jostailuak, umearen adinaren arabera sailkatuta. Horrela, 0 eta 2 urte arteko umeendako, ukimena lantzeko eta gauza berriak deskubritzen laguntzen duten jokoak daude; 2 eta 5 urte artekoendako, irudimena lantzeko jostailuak hautatu dituzte eta horrez gain, bizikletan ibiltzen, margotzen eta piezekin objektuak eraikitzen ikastekoak; 6 eta 10 urte artekoen umeendako, interpretazioa, lankidetzeta, mugikortasuna eta ikerketa lantzeko jostailuak; helduagoak direnendako azkenik, lehiaketa-jokoak, bildumak eta bideo-jokoak.

KRISIA NABARI DA

Arrasateko Zur-lur jostailu dendako Juan Manuel Axpe egun hauetan ari da jostailuak saldu eta saldu: "Gabonetako hamar bat egun gelditzen direnean etortzen dira denak jostailuak erostera eta egun hauetan igarri dugu mugimendua, bai". Beste askok bezala, Zur-lur dendan

ere sasoi honetan egiten dute urteko salmentarik handiena: "Urte guztian saltzen dugunaren erdia saltzen dugu Gabonetan, gutxi gorabehera. Urtean zehar, umeen urtebetetze egunetan eta ikasturte bukaeran saltzen dira jostailuak", dio Axpek.

Hanna Montanaren jostailuak eta bestelako produktuak dira aurtengo salduenak Zurlurdendan. "Krisiaren eragina ere ikusi dugu. Beste urte batzuetan jendeak diru gehiago aurreikusi du jostailuak erosteko; aurten aurrekontu txikiagoarekin datoz dendara", adierazi du Juan Manuel Axpek.

Aurrekontuetan ez ezik, jostailuetan ere krisia nabari dela gaineratu du Zur-lur dendako arduradunak: "Aurtengo jostailuak sinpleagoak dira, ez dute beste urte batzuetako adina teknologia. Kalitatearekin batera, prezioa ere jaitsi egin da, noski".

NORBERAK EGINDAKOAK

Jostailuak erosi beharrean egin ere egin daitezkeela gogorarazi du beste behin Txatxilipurdi elkarteak. "Umeak gurasoekin egotea, eurekin jolastea gura izaten dute eta jostailuak eskuz egitea hori lortzeko modu bat ere bada. Askotan, gainera, beste edozein jostailu baino gehiago gustatzen zaizkie etxean eskuz egindakoak", azaldu du Txatxilipurdi elkarte Arantxa Osorok. "Puzzleak edo karta-jokoak egitea, adibidez, oso erraza da", jarraitu du.



Ume bat jostailuekin jolasten.

ZALOA ETXANIZ

EKA-ren aholkuak

SEGURTASUNA ZAINTEZKO

- > Jostailuei eskatutako berme txikiena CE marka da.
- > Etiketa gazteleraz eta ikusgai egon behar da, eta arriskuei buruzko oharra ekarri behar du.
- > Istripuetan hartu beharreko lehen laguntzako neurriak zehaztu behar ditu etiketak.
- > Zaintza berezia botoi-pilak, bentosak, sokak edo zintak dituzten jostailuekin.
- > Saltoki espezializatu edota egonkorretakoak fidagarriagoak dira besteak baino.
- > Etiketak jaso behar duen beste datu bat da gomendatutako erabilpen adina.
- > Produktuaren publizitate, faktura edo tiketa gorde egin behar dira, erreklamazio bat egin beharra izanez gero.

ARRISKUAK EKIDITEKO

- > Arretaz irakurri argibideak eta fabrikatzailearen gomendioak jarraitu muntatzeko.
- > Ez utzi umeen eskura pilak eta ordeztako piezak aldaketak egin ostean.
- > Jostailuak garbi eta egoera onean mantendu.
- > Erabili ondoren, gorde jostailuak.
- > Arreta berezia jarri euren itxuragatik jostailuak diruditen baina ez diren gailuekin: giltzakoak, pizgailuak, apaingarriak...
- > Jostilu baten segurtasuna ez datza soilik umearen adinaren, baita izaera eta heldutasunaren ere. Garrantzitsua da ere bakarrik jolasten duen edo ez, eta barruan edo kanpoan.

PREBENTZIOA > 'GURASOAK'

Kalean, 'Gurasoak' aldizkariaren ale berria

Nerabeen motibazio eza eskolan da 'Gurasoak' aldizkari laugarren zenbakian jaso duten gaietako bat

O.E. > ARRASATE

Debagoieneko Mankomunitateak gurasoendako egiten duen *Gurasoak* aldizkari bateratua-ren laugarren zenbakia kalean dago jadanik.

Zenbaki berriak dakarren gaien artean honakoak daude: nerabeen motibaziorik ez eskolan, elikaduraren jokaeren nahasketak ekar ditzakeen arazoak eta jolas librearen onurak. Horrez gain, gomendioak, bailarako gurasoendako antolatutako diren ekintzen agenda eta gurasoek egindako galderak ere ekartzen ditu.

Gurasoak aldizkaria 0 eta 18 urte bitarteko seme-alabak dituzten gurasoei zuzenduta dago eta, hain zuzen ere, guraso horien etxeetan banatuko da, doan. 5.500 ale banatuko

> IGERIKETA

6 eta 24 hilabete bitarteko umeendako ur jarduerak Bergaran

Bergarako Kirol Zerbitzuak ur jarduerak antolatu ditu 6 eta 24 hilabete arteko umeendako. Ineteresa duenak izena eman behar du Agorrosinen abenduaren 14tik 27ra bitartean. Behin-behineko zerrendak abenduaren 28an kalera-tuko dituzte eta hurrengo bi egunak akatsak zuzentzeko izango dira. Izena eman dutenen artean zozketa egingo dute urtarrilaren 7an eta igetiketa eskola urtarrilaren 9an hasiko dute.

Asteburuetan izango dira txikiendako ur jarduerak, zapatuetan eta domeketan, 10:15etik 10:45era.


Testu hauek osorik irakurtzeko eta erantzuteko, zatoz gure webgunera



guraso.com

G2a

Goienka2a > KULTURA ETA AISIALDIA



> ROCKA

Quadrophenia eta Golpe de Estado taldeek, kontzertu borobila > 30



> ANTZERKIA

Oñatiko erretiratuen Ikusi Makusi taldeak arrakasta izan du berriro > 32



> BERTSOLARITZA

Debagoiendarrak Txapelketako final erraldoian > 33



Gari ikusleekiko gertuko izan zen emanaldi osoan.

JOSETXO ARANTZABAL

MUSIKA > GARI

Ezer ez da berdin, ezinbestekoa da aurrera egin edo aldatzea

AKUSTIKOA

'16 lore' disko akustiko eta xuxurlariagoa aurkeztu zuen Elgetan

NON: Elgetako Espaloia antzokian.

EGUNA: Zapatua, abenduak 12.

ZENBAT JENDE: 200 lagun inguru.

IRAUPENA: Ordu eta laurden.

IKER BARANDIARAN > ELGETA

Aitortzen dut nahiz eta nire nerabezaroko lehenengo kasetea Hertzaingak-en aurreneko lana izan, ez naizela Gari miresten duen horietarikoa; aspaldi luzean ez dit aparteko zirrarak egin, egia bada ere kantu batzuk gustuko ditudala. Tarteka entzun izan ditut bere diskoak eta inoiz zuzenean ikusi eta entzun izan dut.

Hala ere, badakit jende askorendako izan zirenen eta bizi izan zutenaren zati garrantzitsu bat irudikatzen duela Garik. Eta, gehiago esango dut, asko horren bila joaten dira legazpiarra ikus-

tera eta entzutera. Hala ere, Gari gorabeheratsua da eta ezin beti jakin zer aurkituko duten. Baina gehienek, arrazoi ezezagun bategatik, barkatu egiten diote.

EZOHIKO UKITUA KANTUEI

Hala ere, entzule horiek gurago dute entzungo dutena menderatzea eta ezagutzea, gidoitik ez irtetea, hain zuzen ere. Baina, hori horrela bada ere, Garik pauso bat haratago eman du eta beselako eskaintza ekarri du besapean, *16 lore* izenpean: ildo akustikoa, ukitu elektronikoak, biluztasuna eta klasikoak diren

kantuei tempo, giro eta erritmoen aldaketa nabaria, gehienetan horiek xuabeagoak bilakatuz.

IA BILUZIK AGERTOKIAN

Disko hori aurkezteko eta defendatzeko, azpiegitura txikia osatu du eta lehenengo emanaldia Elgetan ematea erabaki du.

Gari mikrofonoan eta gitarrarekin, eta alboan Migel Moyano tarteka gitarra, teklatu, mandolina, pregrabatu eta koroak egiten; eta Aitor Oñederra irudiak proiektatzen. Hori da guztia. Inongo talderen babes barik, Gari, irudiak eta musikari fin bat.

Garik badauka *zerbait*, baina esango nuke daukan hori abesti xuxurlarietan galdu egiten duela, eta hain justu disko honetan horren aldeko apustua egin du. Halakoak dira adibidez, *Hil ez denak* eta *Amapola*; eta hala bilakatu du, baita ere, *Ta ezer ez da berdin* antzina rock deiarra zena. Bestalde, *Aitormena*-ri, esaterako, mugaldeko kutsua ateradio gitarrarekin, eta irabazi du.

Irudiekin lagunduta, giro bereziak sortu zituzten kantuekin, baina ikusleek men egin arren, gehiegizko informaltasuna erakutsi zuen.



Golpe de Estado talde oñatiarra Hiruko agertokian, 'Txirli' frontman dutela.

JOSETXO ARANTZABAL

MUSIKA > QUADROPHENICOS ETA GOLPE DE ESTADO

Lehengo rocka, gaurko begiekin

NON: Arrasateko Hiru aretoan.**EGUNA:** Barikua, abenduak 11.**ZENBAT JENDE:** 100 lagun inguru.**IRAUPENA:** Bi ordu pasatxo.

IKER BARANDIARAN > ARRASATE

Giro polita izan zen egubakoitzean Hiru aretoan. Egia esanda, Golpe de Estado Oñatiko punk talde bateranoak herrikide dezen-

te mugitzen ditu eta asteburukoak ere ez zen salbuespena izan. Aspaldian asko jotzen dute txantxikuek, eta hori igartzen da.

Txirli-k frontman papera ikasita dauka eta sinesgarria da oso. Eta gaztelaraz abestutako punk-rock kantuek melodia eta indarra, biak dituzte. Zoritxarrez, ez zuten oso emanaldi luzea egin, ordubetera mugatu behar izan ziren-eta.

ROCK ZAHARRAREN USAINA

Arrasatearrak ere izan ziren kontzertuan eta ustekabea hartu zuten *berpiztutako* Quadro phenicos mondragoetarrekin. *Barbak*, Davidek eta Ibaik punka bluesarekin, rockarekin eta rhythm&bluesarekin janzen dute eta emaitza oso erakargarria da, antzinako usaina daukana. Gogoz dator taldea, eta datorren astean Gure Lekun egongo dira.

JAIA > SKATE ETA MUSIKA

Nothing Without-en webgunea aurkeztu zuten

Skate zaleak batzen dituen marka-elkarteak jaia egin zuen Arrasateko Gure Leku tabernan

I.B. > ARRASATE

Egubakoitz arratsaldean jai berezia egin zuten Arrasateko Gure Leku tabernan. Nothing Without skate zaleen markaelkarteak webgunea aurkeztu zuten jende aurrean, eta gero kontzertua egin zuten Cool Circus taldearekin.

Arrasateko musika taldeak, aspaldiko partez, emanaldia egin zuen. Punk-rock eta hard-rocka egiten dute, eta kantu propioez gain, bertsoak ere egin zituzten: AC-DC, Hellacopters, Neurotic Outsiders... Rock-zale horiek diskoa kaleratu gura dute 2010erako.



Arrasateko Cool Circus taldea Gure Lekuko agertokian.

JOSETXO ARANTZABAL



ALMACENES ARRASATE

FAGOR, ASPES, EDESA eta MERKATUKO MARKARIK ONENAK.
Etxetresnetan sekulako eskaintzak!
Orain erosi, eta ordaindu sei hilabetean interes barik.

BERMEA
2 URTE1200 b/min
7 Kg

A+ Saikapen energetikoa

GARBIGAILUA F-2712

420 €

FAGOR

BERMEA
2 URTE1000 b/min
6 Kg

A+ Saikapen energetikoa

GARBIGAILUA 3F-1610

335 €

FAGOR

1000 b/min
5 Kg

A+ Saikapen energetikoa

GARBIGAILUA ALF-110

280 €

aspes

BERMEA
2 URTE185
x
60
x
60

A Saikapen energetikoa

HOZKAILUA DREAM G-185

490 €

edesa

144
x
55
x
60

A Saikapen energetikoa

HOZKAILUA AFD-145

295 €

aspes

BERMEA
2 URTE

TELEBISTA TX-L32X10Y

LCD 32"

470 €

Panasonic

BERMEA
2 URTE

TELEBISTA 32LH-3000

LCD 32"

475 €

LG

BERMEA
2 URTE

TELEBISTA TX-P42X10Y

PLASMA 42"

635 €

Panasonic




A Saikapen energetikoa

PIROLISIS LABEA 6H-755 X

405 €

FAGOR



A Saikapen energetikoa

LABEA ETA BITROZERAMIKA

360 €

aspes

Europar Batasunaren arautegiak ezartzen duen batz besteko energia kontsumoaren araberrako energia aurrezteak.

A+ >>>> 70%
A >>> 45%
B >> 25%

Biltegioko prezioak. Deskontu handiak. Kooperatibistendako prezio bereziak.

Sukalde altzariak: proiektua eta aurrekontua DOAN. Konpromiso barik.
Zatoz eta ezagut gaitzazu. Kataide poligonoan 3, Roneo ondoan.

GipuzkoaKultura

“GipuzkoaKultura” telebista saioak, gure inguruan daukagun kultura ekarriko digu etxera, bizirik dagoena eta batez ere, gertukoa eta egunerokoa.”

“El programa televisivo “GipuzkoaKultura” nos acercará a nuestra cultura, una cultura viva y, ante todo, cercana y cotidiana.”

“L’émission de télévision «GipuzkoaKultura» nous permettra d’approcher notre culture, une culture vivante mais surtout proche et quotidienne.”



“Euskal kulturaren erabilera guztion ohitura izatea helburu duen bide orria.”

“La hoja de ruta que quiere convertir en costumbre cotidiana el uso de la cultura vasca.”

“La feuille de route qui veut changer en coutume quotidienne l’usage de la culture basque.”



Goiena telebista

Osteguna, 22:15etan.

Goierri telebista

Osteguna, 22:30etan.

28 kanala

Osteguna, 22:00etan.

Erlo telebista

Osteguna, 22:00etan.

zure, gure, denon TB saioa.

www.gipuzkoakultura.net

www.tokiko.tv



Rosi Lucas eta Ana Mari Chacón aktoreak.

JOSETXO ARANTZABAL



Bi agertoki ditu antzezlanak, lorategia eta denda.

JOSETXO ARANTZABAL

ANTZERKIA > OÑATIKO ERRETIRATUAK

Ikusi Makusi taldearen azken antzezlanak ere arrakasta izan du

Santa Ana aretoa bete egin zen eta sarrerarik gabe gelditu zen jendea

Izen bereko filman gertatzen den bezala, marihuana saltzen dute erretiratuek

OIHANA ELORTZA > OÑATI

Sarrera denak aurrez saldu ziren beste behin Oñatiko erretiratuen elkarteko Ikusi Makusi antzerki taldearen azken lana ikusteko. Ia 300 lagun joan ziren egubakoitz iluntzean Oñatiko Santa Ana antzokira Axun Arzuagak idatzi eta zuzendutako bosgarren antzezlan ikustera, *El jardín de la alegría*.

Izen bereko filmean gertatzen den bezala, belar usaintsuak zaintzen dituzte erretiratuek, baina hori estalki bat baino ez da,

marihuana saltzen ari baitira benetan. "Nik ez nuen pelikularen berri eta lan hau idatzi nuenean, *El jardín de la alegría* deitzea proposatu zuen taldeko kide batek. Gainerakoei gustatu egin zitzaigun eta horregatik jarri genion izen hori. Pelikula baten izenburua zela jakinez gero, beste bat jarriko genion", dio Arzuagak.

GERO ETA HOBETO

Antzezlan horren bigarren emanikuzun publikoa zen egubakoitzkoa eta Axunek berak aitortu

bezala, "aurrekoan baino hobeto" ibili ziren denak. Ezustekorik ere izan zen, hala ere. Antzezlanean parte hartzen duten hamar aktoreetatik batek bakarrik jantzen du *pinganilloa*, eta egubakoitzeko emanaldian lurre-ra erori zitzaion. "Baina geu bakarrik enteratu ginen, oso ondo disimulatu zuen", dio Arzuagak.

Paki Mateos ikusleen artean zegoen egubakoitzeko emanaldian. "Asko gustatu zait, barre asko egin dut. Ertzaina, adibidez, oso dibertigarria da; horrelako-

ak izan beharko lukete benetakoek ere". Mari Paz Goenagak ere ikusi du antzezlanak, eta aurrekoak gehiago gustatu zitzaizkiola dio: "Aktoreek oso ondo egin dute lana, merito handia dute papearak ikasten eta hain natural egiten, baina niri argumentua ez zait gustatu". Ordu eta erdi iraun zuen antzezlanak, 7 minutuko atsedendialdiarekin, agertokia eta aktoreak arropaz aldatzeko. Beste emanaldi bat ere egingo dute, "sarrerarik gabe gelditu direnendako", gaineratu du Arzuagak.



JOSETXO ARANTZABAL

Oñatiko Malenkonia taldeak disko berria aurkeztu zuen Arrasaten

Oñatiko seikoteak *Hegazkadak dakar ekaitza* lana aurkeztu du eta jo eta ke dabilta kontzertuak egiten. Herenegun, zapatua, Arrasateko Gure Leku tabernan izan ziren. Jende dezente batu zen, eta kontzertuak aurrera egin ahala, gero eta giro beroagoa lortu zuten. Gainera, agertokia txiki gelditu zitzaenez, musikarietako batzuk jende artean aritu ziren. *Haizerik gabeko egunak* eta *Ilargirantz* pop-rock pieza propioez gain, Coldplay eta La sonrisa de Julia taldeen bertsoiek ere piztu zuten jendea.

MUSIKA > ROCKA

Governors taldearen bideoklip bat saritu dute

Arrasateko taldeak martxoan kaleratuko du bigarren diskoa Oihukarekin

Eñaut Elorriagak, Kop taldeko Juanrak eta Sorkun abeslariak hartu dute parte, Arrasateko Governors taldearekin batera.

MARTXOAN, DISKO BERRIA

Governors taldearekin jarraituta, esan beharra dago urtarriaren 18an Haritz Harreguy soinu teknikariarekin grabatzera sartuko direla. Lana Oihuka diskoetxeak kaleratuko du eta hamar abesti izango ditu. Are gehiago, Juan Sangre abeslariak jakinarazi digu diskoan *Kristal kolpatuak* bideoklipa ere sartuko dutela.

Diskoa martxorako kalera tzea aurreikusten dute; eta orduan ezagutzera emango dituzte Governorsen batu dituzten taldekide berriak: Paco eta Jorge, hain zuzen ere.

IKER BARANDIARAN > ARRASATE
Euskal zine eta bideo sariak banatu berri dituzte. Eta hain zuzen ere, Governors taldeak beste artista askorekin egindako *Kristal Kolpatuak* bideoklipa saritu du epaimahaia. Hatortxurock jaialdirako egindako abestia eta bideoklipa da saritutakoa.

David Zabalak eta Paul Urkijok egindako lanak sorkuntza saileko lehen saria eskuratu du. Besteak beste, bideoklipetan, Ken Zazpi taldeko

BERTSOLARITZA > EUSKAL HERRIKO TXAPELKETAKO FINALA

Maialen Lujanbiori txapela, itzela

NON: Bilbao Exhibition Center-en.

EGUNA: Domeka, abenduak 13.

ZENBAT JENDE: 14.500 entzule.

IRAUPENA: Zortzi ordu.

IRATI AGIRREAZALDEGI > BARAKALDO
Domeka, Barakaldo, erakustazokako sarreran jendea zer gerta. Lagun askoren topaleku izan da Euskal Herriko Bertsolari Txapelketa; eta finalera iritsi diren zortzi bertsolarien meta.

Autobusez zein autoan, guretik ere makina bat bertsozale zen joan. Kinielarik ez dakit inork asmatuko zuen atzokoan. Baina ziur gustura bueltatu zirela finala amaitutakoan.

Betekadan barrena, bertsolariek pausoa, Iturriaga lehena, eta ostean, Sarriegi, Arzallus, Colina, Egaña, Maia, Lujanbio eta Mendiluze, zortzikote dena. Txalo zaparrada entzuleek eman zientena, eta bueltan bertsolariengandik jaso zutena.

HANDIAN SERIO, TXIKIAN UMOREZ
Agurretan pertsona asko aipatuak; entzuleak, txapelketan jardun duten bertsolariak, Egunkariko auzipetuak...

Zortziko nagusian serio ekin zioten bertsolariek. Aipatzekoa Lujanbio eta Mendiluzeri hilzorian zegoen aitak etxeko pagopean Gerra Zibileko bi gorpu zeudela aitortu zienekoa. Pagoa bera oinarri hartuta irudi politik osatu zituzten biek ala biek.

Zortziko txikiak eragin zituen algarak eta txaloak; ordura arte lasai antzean ziren entzuleak bizituz. Iturriaga eta Colina telebistako aurkezleak mahai azpitik elkarri zirika; Maia eta Lujanbio ezkontzan dantzan; baina txalotuena Mendiluze semeari Egaña ama lehen lan egunean termoarekin joan zitzaioneko saioa. Semeak ezpain-zapia lepoan ez jartzeko eskatu eta honek bazkalostean muturra garbitzen uzteko esan zion, entzule denak, aurrez jadanik barrez zirenak algaraka ipiniz.



Maialen Lujanbio hunkituta, txapela jantzita, agurreko bertsoa abestu aurretik.

LUIS JAUREGIALTZO / ARGAZKIPRESS

KAZETARIAK KARTZELAN

Seiko motzean, hitz joko politak. Andoni Egaña eta Maialen Lujanbioak bata besteari giltzurruna emandakoan botatakoak, hunkigarriak.

Ofiziotako lanak eginda, kartzelara. Azken artikulua idazten ari den kazetariaren paperean Egunkaria auzia, Aminetu, filtrazioak, torturak; gai beraren bueltan bide asko. Aipatzekoak, Amets Arzallusen hiru bertsoak. Horrela amaitu zuen azkena: "Idatz dezadan muga urtu da, Euskal Herria libro da; ez da egia baina egia, bihurtuko da gerora".

Arratsaldean giroa bero; denak bazkal orduko eta goizeko bertsoen BECtekadaren bezero; jendeak egindako olatu era-

ko mugimenduen bidez bertsoetan erraz murgiltzen ziren seinale-edo. Txapelketako sintonia egin duen Zura taldea taula gainean, eta Orioko txaranga txikia gero.

KAZETARIAK KARTZELAN

Hamarreko txikian hasi zuten arratsaldeko saio puntuagarria. Maialen eta Amets Gabonetako eszena irudikatu zuten; amari mahaitik ez jaikitze esan eta hala ere jaiki zen Maialen zera esanez: "Beti ez jaikitze, dabilta esaten; platera sukaldara, ez da oinez joaten". Umoretik heldu eta asmatu egin zuten biek ala biek.

Puntutan ere saio biziak, elkarri zirika eta elkarri erantzunez, jendearen barreak eraginez.

Bakarkako lanak etorri ziren ondoren. Hiru bertso borobil Maialenen ahotik, minbizidun bi umeri begira dagoen sendagileak kantatuak. Arrazoi politik bezain hunkigarriak; lehen bertsoa horrela amaitu zuen: "Eurengan minak badu indarra, baina bizitzak gehiago". Gainontzekoak ere txukun ibili ziren bakarka.

Iritsi zen buruz burukorako bi izen esateko garaia eta txalo eta oihera aurrera egin zutenak Maialen Lujanbio eta Amets Arzallus.

Ama anorexikoa zuten seme-alaben ahotik gaitzari fin eusten asmatu zuten eta Maialenek horrela amaitu zuen bigarren bertsoa: "Gu bioi jaten eman zigunak; ez duela jan nahi". Bigarren

ofizioan ere txukun eta zer esanik ez bakarka; puntuetan berdindu egin zuten gainera. Sua ipini zieten hitza eta Lujanbioak begien suari kantatu zion, Amets bertsolaritzaren garrari.

Saioa amaitzeko barrua biluztu zuten biek kartzelara bisitan joan eta biluztu zituztenean.

Eta saio borobilaren ostean, Maialen Lujanbio, lehen emakume txapelduna, sari handiaren jabe. Malko, txalo, txistu baina denak Joxe Agirrek txapela nola jantzen zionaren mirabe.

Amets Arzallus bigarrena eta Jon Maia hurrena; Egaña laugarren, eta lekukoa bera taula gainean zela emanik gustura etxeratu zena. Bertsoak batu zituen denak, eta bete zuten dena.

DEBAGOIENDARREN ESANAK

Beñat Zamalloa
Kazetaria

"Lujanbio merezi zuen, txapelketa oso lanagatik"

"Goizean bertso oso onak entzun dira, zortziko txikian gehienbat; arratsaldea, aldiz, gorabeheratsuagoa izan da. Maialen Lujanbio ez bezala, Amets Arzallusek akats tekniko pare bat egin ditu eta epaileak aintzat hartu ditu. Lujanbio izan da bertsolaririk orekatuena eta, txapelketa osoan egindako lanagatik, merezi zuen".

Ainhua Agirreazaldeg
Bertsolaria

"Bertsolariek eta gai jartzaileek sekulako maila erakutsi dute"

"Punta-puntako finala izan da, zoragarria. Zortzi ordu asko diren arren, kalitate handikoak izan dira denak. Gai jartzaileak bikain aritu dira eta bertsolariak zer esanik ez, Lujanbio eta Arzallus gehienbat. Oroimenean geratzeko moduko bertso asko kantatu dituzte. Bertso eskolen lana goraiatzea ere eskertzekoa da".

Patxi Goikolea
Leintzeko Bertso Eskola

"Egaña lau bider jantzi du txapela; ondo dator aldaketa"

"Fenomeno joan da dena. Aukeran, goizeko saioa izan da hobe, baina arratsaldekoa ere berotu da azkenerako. Emakumeek indar handia hartu dute eta pozten naiz. Egaña izan ezik, beste zazpiak bertso eskolatik pasatakoak dira eta horrek erakusten du eskola horien maila altua. Sarriegiri saria ematea saria izan da niretzako ere".

Iñaki Olalde
Oñatiko Bertso Eskola

"Lujanbio nahiz Arzallusek, edonork irabaz zezakeen"

"Finalak ez digu hutsik egin; oso ondo joan da. Askok espero moduan, Lujanbio eta Arzallusen artekoa izan da buruz-burukoa; bietako edonork irabaz zezakeen. Arratsaldeko saioa patxadaz jarraitu dut, baina goizean lanean ibili naiz: Oñatiko Larrain Gain elkartetik ekarri dugu jana antolakuntzako 250 laguntzat".

Ariane Alberdi
Bergarako Bertso Eskola



"Sarrera hunkigarria izan da: denak zutik eta txaloka"

"Nik Lujanbio irabaztea nahi nuen eta oso pozik nago. Buruz-burukorako bi izenak eman dituztenean hunkigarria izan da, aldaketa zetorrela ikusi dugulako. Laugarren postuarekin bada ere, iruditzen zait Egaña gustura geratu dela, oholtza gainean kendu diotelako txapela. Honez gero, nekatuta ere bazegoen".

sudokua

		4						3	
2			8		3	5			
		6		4					
3		2			6				
	6	7	3	8	2		9	5	
		3		5	8		7	1	
5					7	2			
	4				9		5	8	

bila-bila 7




hitz gezidunak

Juduen jai nagusia	▼	Bizkaieraz, sukalde	▼	Satanen multzoa	▼	
Zealdoka		Biarnokoa		Jauntxo		
Toka, diet	▶					
Desira, nahi bizia						
Poesia	▼	* IRUDIAN	▶			
Animalia hausnarkari		Herren				
Esan, hitzez adierazi	▶			Suari dario	▶	
Ez ilun				Alaitasun		
			Hegazti mota	▶		
			Oinarrizko edari	▼		
Intsektu mota	▶				1	▶
Etorrarazia					Iridioa	

GOIENKARIA

soluzioak



Z	E	N	V	N	R	E	F
A	F	L	K	J	S	A	D
O	L	K	E	I	V	A	J
B	H	T	C	B	E	T	G
A	S	M	U	T	N	A	B
B	E	L	J	H	N	B	T
E	U	E	L	A	N	T	X
G	S	A	I	B	A	R	I
F	A	B	T	A	X	Z	T

Hieroglifo: Pasaia.

hieroglifo

Gipuzkoako herria.



hizki salda

Arrasateko bost pertsona ezagunen abizenak

T	Z	A	X	B	T	A	B	F
G	A	R	I	B	A	I	S	G
X	I	A	N	T	L	A	U	E
B	T	N	H	J	T	L	E	B
B	E	A	N	T	U	M	S	A
T	G	E	T	C	B	H	T	B
J	I	A	T	I	E	K	L	O
D	S	A	J	K	D	L	F	A
F	E	R	N	A	N	D	E	Z

8	5	4	9	2	1	7	3	6
2	7	9	8	6	3	5	1	4
1	3	6	7	4	5	8	2	9
3	1	2	5	9	6	4	8	7
9	8	6	2	4	3	6	2	9
4	6	7	3	8	2	1	9	5
6	2	3	4	5	8	9	7	1
5	6	8	6	1	7	2	4	3
7	4	1	2	3	9	6	5	8

J	I	N	A	R	A	Z	I	A
K	K	U	U	S	O	I		
A	R	G	I	E	P	E	R	
E	R	R	A	N	K	E		
E	L	U	R	O	R	E	I	N
O	I	K	A	T	Z	A		
Z	I	E	A	T				
Z	A	B	U	K	A			
S	S	P						

asteko horoskopoa

ARIES martxoak 21-apirilak 21

Lan-arazoak izango dituzu, baina aurrera ateratzeko gai izango zara. Ez etsi, zure adiskideen laguntasuna izango duzu. Ez gehiegi jan, betekadak jasan beharko dituzu bestela.

TAURUS apirilak 22-maiatzak 21

Saturno zure zeinuan dagoenez, gauzak zaildu egingo zaizkizu, baina zure ardurdun Venus dagoenez, zure bihotzeko neska edo mutila aurkitzeko aukerak dituzu.

GEMINI maiatzak 22-ekainak 21

Momentu ona da bidaia bat egiteko edo ikasketetan jarduteko. Utz ezazu zure harrokeria alde batera eta adiskidetu zaitez zure etsaiekin.

CANCER ekainak 22-uztailak 22

Ilargiaren eraginez, aldi dinamiko batean zaude; horregatik, saiatu zaitez arreta gehiago jartzen zure eguneroko lanean. Kontu handiz ibili patrikarekin.

LEO uztailak 23-abuztuak 22

Zorte ona izango duzu, eguzkia Jupiterren dagoelako. Zure proiektu guztiek aurrera egingo dute; horregatik, arriskatu egin behar zara.

VIRGO abuztuak 23-irailak 22

Zure lanerako proiektuek bukaera positiboa izango dute, baina kontu handia eduki behar duzu zure desioekin, proiektu hauek honda ditzakezulako.

LIBRA irailak 23-urriak 22

Egun onak pasako dituzu eta ez duzu asperaldia ezagutuko, baina horrek alde negatiboa ere badakar: lanean eta ikasketetan gaizki arituko zara.

SCORPIUS urriak 23-azaroak 22

Bakez beteta sentituko zara, eta barneko harmonia horrek zure ondoan daudenei ere eragin egingo die. Lan-munduan helburu eta plan asko bururatuko zaizkizu.

SAGITARIUS azaroak 23-abenduak 21

Eguzkia zure zeinuan sartu denez, une honetan zodiakoaren zeinurik onena zara. Ez ezazu alferrik galdu zure eguna inoren erruz.

CAPRICORNIUS abenduak 22-urtarrilak 20

Venus zure zeinuan dago; horregatik, adi egon zaitez bihotzak bidaltzen dizun mezuetara, horretarako egunaren zati bat gorde, bakarrik egon zaitez.

AQUARIUS urtarrilak 21-otsailak 20

Arazoak konpontzea komeni zaizu; baikortasunak bultzatzen zaitu erabakiak gaizki hartzera. Gauzak egin baino lehenago birritan pentsa itzazu.

PISCIS otsailak 21-martxoak 20

Aste honetako zure ezaugarri nabarmena sedukzioa da. Zure fantasia edonori kutsatuko diozu, eta zure inguruok alai izango dira.

asteburuko albuma

Jostunek zaindaria gurtu dute.

Arrasateko 120 jostun inguruk euren zaindaria, Santa Lutzia, gurtu dute aurten ere. Zapatuan haren ome-nezko afaria egin zuten herriko batzokian. Jatetxe biak, goikoa eta behekoa, bete zituzten. Menu hau-xe aukeratu zuten urteko ospakizunerako: iberikoa, gulen entsalada epela, kalabazin eta ondoekin egindako pasteltxoa, lupia errazio erdi eta txuleta beste erdi. Ardo ondua, postrea eta kafea. Aurreko urteetan bezala, afal ostean dantzaldia izan zuen afaltzeko elkartu zen emakume koadrilak.



Abaroan ere Santa Lutzia ospakizunak. Arrasateko erretiratuen etxean, Abaroan, ere ospatu dute asteburuan Santa Lutzia eguna. Egubakoitz arratsaldean ogitartekoak eta zuku edo ardo tragoxka hartzeko aukera izan zuten han batu ziren erretiratu guztiak. Abaroako aretoa bete-bete eginda egon zen merienda orduan: 340 txartel banatu zituzten, baina gehiagok ospatu zuten Santa Lutzia eguna.



Ipuin kontaketa Arkupen. Iker Diaz ipuin kontalarik *Goazen itsasora* ikuskizuna eskaini zuen umeendako zapatu goizean Aretxabaletako liburutegian, Arkupen. Itsasoari buruzko istorio entretenigarria kontatu zien umeei, kantuez osatuta; irudimena erabiltzeko komedia musikala. Umeak ez ezik, gurasoak ere adi egon ziren.

kuxkuxeroa



Oihana Elortza

Gabonetako elkartasunaren izenean

Gabonak nahiko indar ei dute jendea solidario bihurtzeko, bai, behintzat, urteko beste sasoi baten baino solidarioagoa. Ahalmen hori aprobetxatzeko edo, Gabon jaien bezperatan antolatatu izan du Oñatiko Elkar Hezi ikastetxeak elkartasun azoka. Baita aurten ere. Oñatiar dezentek ikusi zuten, gainera, azoka. Horien artean zegoen **Fermin Etxegoien** idazlea, hain justu Arrasateko kultura teknikaria den **Karmelo Alberdirekin** berriketan, kulturatik kulturara, badakizue. Bezperan, eguba-

"Larraitz Trojaolak gonbidapen berezia jaso zuen Txatxiliko Mihiluze erraldoian parte hartzeko"

koitzean, Debagoieneko EAJ-ko kide asko joan ziren Josu Erkoreka babestera Arrasateko Kulturatera. Hantxe zeuden, adibidez, **Arrixu Olliden**, **Ainhoa Galdos** eta **Patxi Basauri**.

Larraitz Trojaola, berriz, Txatxilipurdik antolatutako *Mihiluze* erraldoian izan zen zapatu arratsaldean. ETBko *Mihiluze* bertatik bertara ezagutu du **Trojaolak**, eta Txatxilikoek gonbidapen berezia bidali zioten, elkarte horrek Kulturaten egin zuen lehiaketako parte-hartzaileekin solidario izateko, besteak beste. Gauean, Elgetako Espaloian izan zen **Trojaola**, **Gari** ikusi eta entzuten. Han zeuden ere Kutxako **Olentzero** lanak egiten dabilen **Mikel Irizar** eta Gose taldeko **Iñaki** eta **Ines**, besteak beste.

URTEURRENA

Alazne Gartzia Errasti

2006ko abenduaren 15ean hil zen.

Zure begiek
ene maitea
badute biek
dirdir eztia.

Asko maite zaittugu

Zeruko lore,
miresgarriak
izarren pare,
zoragarriak.Aitatxo, amatxo, Garazi eta Julen.
Arrasaten, 2009ko abenduaren 14an.

ESKELAK


GOIENKARIAN eskela jarri nahi baduzu, deitu telefono honetara eguen eguerdia baino lehen:

943 25 05 05

Edo zatoz ordezkari batara.

Eskelaren prezioa: 110 euro.Prezio berezia: egubakoitzeko eta asteleheneko GOIENKARIAN, bietan, argitaratuz gero, **150** euro.**Goienkaria: astero, 36.000 irakurle (CIES) Gipuzkoan.**

zorion agurrak



BERGARA
Markel Larrañaga Larrañaga
Abenduaren 6an, 5 urte. Zorionak, Markel! Oso-oso ondo pasatu zure urtebetetze egunean. Muxu pila bat Oñatiko familiaren partetik.



ARETXABALETA
Josu Hernando
Abenduaren 8an, 3 urte. Zorionak, pirata!



ESKORIATZA
Jabi Baena
Abenduaren 10ean, 25 urte. Zorionak, txiki! Azkenien ein ditzuzula 25 urte... jeje. Furgonetia etxoitxen daukotzu kilometruak itxeko. Ondo pasatu eguna eta patxo potolo bat danon partetik!



ARETXABALETA
Danel eta Oxel Zubillaga Olabe
Abenduaren 10ean, urtebete. Zorionak eta muxu handi bi etxeko guztien eta, bereziki, Maddi, Sarah eta Yuliren partetik.



OÑATI
Beatriz Telleria
Abenduaren 11n, 44 urte. Zorionak eta ondo pasatu zure familikoekin.



OÑATI
Julen Iriondo
Abenduaren 11n, urtebetetzea. Zorionak lan-kideen partetik. Aurten ere gustura asko egon zara BECeke eserlekue-tan, baina 4 urte barru agertokian.




ARRASATE
Alejandro eta David Guevara Muñoz
Abenduaren 12an. Zorionak! 9 eta 2 urte jada! Hemengo eta Hondurasko familiaren partetik muxu handi bat. Asko maite zaituztegu!



OÑATI
Amaia Ugalde Arkiola
Abenduaren 12an, 10 urte. Ea trufak goxoak irtetzen diren. Guk jango ditugu... Zorionak, potxola!




ARETXABALETA
Zuriñe Larrinaga
Abenduaren 12an, urtebetetzea. Urte askotarako, amatxo, eta patxo handi bana Amaiur eta Zاراitzuren partetik.



ANTZUOLA
Alaitz Igarzabal
Abenduaren 12an, urtebetetzea. Zorionak, polita, zure urtebetetzean! Ostiralean bertan ospatuko dugu. Gora abenduokak! Gora emakume ausartak! Antzuolako lagunak.



OÑATI
Amaia Alonso
Abenduaren 13an, 52 urte. Zorionak eta urte askotarako zure lagun partetik.



ARRASATE
Iker Barandiaran
Abenduaren 14an, urtebetetzea. Zorionak, *jubilau!* Urtebete aguantau gaittuzu eta oin penaz joango zara *jefe*. Besarkada bat.



ARETXABALETA
Unax Kortabarría Markaide
Abenduaren 14an, 4 urte. Zorionak eta patxo handi bat etxeko guztien eta Eskoriatzako partetik.



ARRASATE
Fernando Oncala
Abenduaren 15ean, 37 urte. Zorionak *guapisimo!* 37 urte ez dira ezer. Ondo ospatu eta ahaztu penak! Zure familiaren partetik, urte askotarako.



ARETXABALETA
Ilargi Villar Urrutia
Abenduaren 15ean, 2 urte. Zorionak, Ilargi. Asteartean bi urte beteko dituzu. Egun polit-polita izan dezazula. Bihotz-bihotzez, aitatxo eta amatxo.



ARRASATE
Naiara Santos
Abenduaren 15ean, 6 urte. Zorionak eta patxo handia familia eta lagun partetik.



ARRASATE
Espe Lizarralde Gallastegi
Abenduaren 15ean. Zorionak eta patxo potoloak etxeko danen eta, bereziki, Luken eta Eleneren partetik. Pastel goxo-goxoa pres-tatu eta guk lagunduko dizugu kandlei putz egiten!



BERGARA
Mariñe Gonzalez Barrutia
Abenduaren 16an, 9 urte. Zorionak familiaren eta, bereziki, Mirenen partetik.



BERGARA
Beñat Arin Etxabe
Abenduaren 16an, 4 urte. Zorionak eta patxo handia etxeko partetik.



ARETXABALETA
Miren Arietaleanizbeaskoa
Abenduaren 16an, 27 urte. Zorionak! Ondo pasau eguna!



OÑATI
Unai Zabaleta Telleria
Abenduaren 17an, 12 urte. Zorionak eta ondo pasatu eguna, zure familia eta lagun partetik.



OÑATI
Isak Alberdi
Abenduaren 17an, urtebetetzea. Zorionak eta urte askotarako. Ondo pasa eguna.



ARRASATE
Enaitz Arkauz Aperribai
Abenduaren 17an, 7 urte. Zorionak eta patxo handia etxeko partetik.



OÑATI
Leire Arregi Heras
Abenduaren 17an, 5 urte. Zorionak eta muxu handi bat etxeko guztien partetik. Asko maite zaitugu. Ondo-ondo pasatu zure urtebetetze eguna. Muak.




ARETXABALETA
Irati Garai Leturiaga
Abenduaren 18an, 6 urte. Zorionak, printzesa! Marrubizko muxu potolo bat familia guztien eta, bereziki, Haritz, Eider eta Oierren partetik.



ARRASATE
Ane Berezibar
Abenduaren 19an, urtebetetzea. Aupa Ane Miren! Politonokuek laister emango dizue pelmadie. Zorionak eta ondo-ondo pasatu!



ARRASATE
Ainhoa Ansorregi Jauregi
Abenduaren 19an, 5 urte. Zorionak eta patxo pila bat etxeko partetik.



BERGARA
Ander Iñarra
Abenduaren 20an, 5 urte beteko ditu. Zorionak eta patxo pilo bat zure amamaren partez.



BERGARA
Mikel Arrieta Gorosabel
Abenduaren 20an, urtebetetzea. 3 urte hauetan etxeko bazter guztiak alaitu dituzulako, zorionak eta eskerrik asko, maitxia! Etxekoak, bereziki Jone.



BERGARA
Maddi Barrokak Santos
Abenduaren 20an, 4 urte. Zorionak eta patxo handia etxeko partetik.

jaiotakoak



Aner Moreno Gomez
Arrasate > 3,600 kilo. Abenduaren 9an. Gurasoak: Marta (Cuzcurruta de Río Tiron) eta Jose Antonio (Arrasate). Argazkian, Aner jaioberria, amarekin.



Lander Trujillo Aguilar
Arrasate > 4,530 kilo. Abenduaren 10ean. Gurasoak: Mari Carmen (Arrasate) eta Juan (Arrasate). Argazkian, Lander jaioberria, gurasoekin.



Naia Rueda Cabanillas
Arrasate > 3,250 kilo. Abenduaren 8an. Gurasoak: Emi (Arrasate) eta Alberto (Arrasate). Argazkian, Naia jaioberria, gurasoekin.

BABESLEA

IKUSI MAKUSI

Umeen paradisia

Lazarraga 4 OÑATI 943 08 23 32

Laura Mintegi > Idazlea

"Psikologo lana egitea eskatzen zaigu idazleei"

JON BEREZIBAR > ARRASATE

Berak dio nafarra dela bihotzez (Lizarra, 1955) eta burua bilbotarra duela. Algortan bizi da aspalditik eta literatura du ogibide EHUko irakasle delako, idazle izateaz gain. *Sisifo maiteminez* eta *Ecce Homo* eleberrietan, bietan, giza sentipen eta gatazken bidaia proposatzen ditu. Helburua beti da gogoeta eta ezagutza.

Paper zuriaren sindromea-ren aurrean zaude gaur egun. Aspaldi lan guztiz berririk atara gabe.

Nire epealdiak bost urtekoak dira. Hori da behar dudana denbora aurrekoaren soinua ahazteko eta berriarena entzuten hasateko. Aspalditik dut hurrengoaren musika buruan eta hasia ere badut, baina bizitzaren zirkuntantziengatik trabes sartu zaizkit beste arazo batzuk eta geldirik nago uneotan. Badakit zer nahi dudana, baina ez dakit lortuko ote dudana, oso dema handiak jarri ohi dizkiot-eta nire buruari. Erronka geroago eta latzagoa da, baina horretan dihardut. Perfilatua daukat.

Muturreko egoeratan jarri ohi dituzu zure pertsonaiak.

Guztiok gara oso jatorrak lau txikito edateko tabernan, baina benetan arazoak dauden uneetan ikusten da benetan nolakoak diren pertsonak. Orduan hartzen dira sorpresak; bai hurkoarekin zein nor bere buruarekin. Kol-dar ala ausart joka dezakegu, ala biak, unearen arabera.

Zure pertsonaien moduan, argi-ilun asko dauzkagu. Heroirik ez dago.

Nolabait, indargabetu egin gura izaten da literatura, eta zinemagintza edulkoratu batek eman digun hori. Pertsonak ez gara lauak.

Ez gaude, baina, entretenimendu hutsera ohituegiak. Ez dira ur sakonegiak zureak?

Garai guztietan behar izan dira gauza biak. Beti behar da hausnarketa. Momentu honetan gure konfessore klasikoak desagertu egin dira; hau da, garai batean familiako medikuak edo apaizak egiten zuen psikologo lana eta gaur egun, askotan, idazleei eskatzen zaie hori. Euskarriak eta lekuak behar ditugu aztertzeke zera gertatzen zaigun guri eta gizarteari.

Eta denbora-pasak?

Informatikak txoratzen nau, programak ulertzea. Interneten nabigatzeak kontzientzia txarragoa eragiten dit, baina denbora luzea ematen dut kuxkuxeatzen. Hori ere ikasbidea da, hala ere.



Hausnarketa eta ezagutza dira Mintegiren helburuak.

OIHANE ISASI

SOSLAIA

Enpatia muturrekoa

Bere pertsonaiekin sufritu eta negar egitera iristen da eta behin azken puntua idatzita ere luzarotan geratzen ei zaizkio mamuak bezala barruan. Egiakotasuna da Mintegiren obsesioa; pertsonaia horiek sentitzen dutena berak bizi izatea. Behin bakarrik egin ei du porrot anbizio horretan, torturazaila batekin. Horra, gaudituz ezin izan duen muga bat. Gabeziak eta galerek utzitako hutsak ditu orain ardura. Hurrengo lanaren ardatza horixe izango du. Dagoeneko badu datorren horren "musika" buruan.

ai, ene!



Eulitzarrak eraztun

Hemendik aurrera modan egongo dira eulitzarren eraztunak, auskalo. Batzuei gustatuko zaie eta beste batzuei ez, baina horrelako eraztunak janzten dituen kontuz ibili dadila euliak hiltzekoekin, badazpada.

www.nomelopedocreeer.net

biharamuna

Iñigo Biain

Derrigorrezko Gabonen tristura

Gabonak gainean ditugu, eta ezin dut burutik kendu nola jokatu beharko nukeen nire printzipioekin bat etortzeko. Olentzero ("asmakizun" modernoa) mitologia paganoaren ikur bat izatea nahiko nuke, baina badakit euskal elizak mundura ekarritako figura sasi-erlijiosoa besterik ez dela, Jesus-en jaiotzaren berri Euskal Herriari emateko helburua duena. Beraz, nola ospatu beharko genituzke Gabonak familia laiko eta akonfesional batean? Izan ere, politikan muturra sartzen duen, antisorgailuaren aurka dagoen, sistematikoki beldurra eta mehatxua erabiltzen



dituen, muturreko eskuinari eta munduko diktadura askori eskua ematen dien, eta bere baitan ematen diren abusu eta bortxak ezkutatzeko elizarekin zerikusirik eduki nahi ez dugunok, nola ospa genitzake jai egunok? Eta, noski, bere burua errepublikartzat duen edonorentzat Errege Mairuen kontua ere ez da batere atsegina... Baina badirudi, gizartearen inertziak berak urtetik urtera ohitura hauek mantentzera bultzatzen gaituela... Eta aurten ere Gabon kantez, argitxo, zuhaitzez eta jaiotzez apaindutako tristura sakona sentituko dut ezer aldatu ez delako.

eguraldia



MAXIMOA

+3

MINIMOA

-2

Goizaldean tenperaturak zero-petik eta elurra 0-200 metroren bueltan; azken orduetan 300-400 metrotara igoko da elur kota.

www.euskalmet.net



dks '09
debagoieneko
II. kirolsariak

Debagoieneko kirolaren sari banaketa ekitaldia

Eguna: Abenduak 18 ostirala
Lekua: Santa Ana aretoa (Oñati)
Ordua: 19:00etan

Egin zure proposamena!



www.kirolsariak.com

ANTOLATZAILEAK



BABESLEAK



LAGUNTZAILEA

